

**Iñaki LIZASO****Hunkipen eta esker oneko hitzak agurrean → 40**

2013ko irailaren 5a | XXXIII. urtea | 597. zenbakia

www.ttipi.net**Herrietako Bestak**

Elbete, Eratsun, Oiz, Txokoto, Sara...

IGANTZI → 15

XXIII. Mendi Bizikleta Ibilaldia igandean

DONEZTEBE → 20

Erreka Kirol Elkartearen zuzendaritza berria

BAZTAN → 34

Instrumentuen poltsa sortu nahi dute Musika Eskolan

SENPERE → 37

Emak Hor abesbatzak eta fanfarreak 100 urte

Antonio ALUSTIZA | Nafarroako Artzain Zakur Txapelketako irabazlea

Aurtengoarekin 14 aldiz irabazi du Nafarroako Txapela, eta horietatik 10 jarraian

Uharte Arakilen 5 artzain aritu ziren lehia 8 zakurrekin, eta horien artean Antonio Alustiza aresoarra *Bat* eta *Jai* zakurrekin, Pedro Ansa aranoarra *Alai* zakurrarekin, Oronoz-Mugairiko Jorge Oteiza *Azeri* eta *Arakil* zakurrekin eta Joxe Mari Ixtilart amaiurra *Alai* zakurrarekin.

→ 15



ARGAZKIA:

UNAI BEROIZ / DIARIO DE NOTICIAS

**Joanes MAIZA | GoiEner****ELKARRIZKETA → 3**

Energia berriztagarrien erabilera sustatu eta kontsumo arduratsua bideratzeko sortua da GoiEner kooperatiba. Energia garbia erosi eta bazkideen artean saltzen du.

**ERREPORTAJEA → 4-5**

Duela 20 urte hasi zen Sarako Urtxintxak nesken artean esku-baloia zabaltzen. Orain 70 neska inguru ari dira.

ZOZKETAK → 31

Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora

Hizkuntza bat ikastea

ZURE ETORKIZUNERAKO ZUBIA

INGELES, FRANTSES, ALEMAN ETA TXINERA IKASTAROAK

- Haurrentzako, gaztetxoentzako eta helduentzako ikastaroak
- Enpresentzako ikastaroak
- Hainbat modalitate: estandarra, trinkoa, eskola pribatuak
- Ordutegi-malgutasuna. Astelehenetik larunbatera
- Bertako irakasleak
- Talde ttikiak (gehienez ere, 9 ikasle)
- Gure ikasleen %90ak azterketa ofizialak gainditu dituzte
- Ikastaroak atzerrian
- Online ikastaroak
- Itzulpenak

2013-2014 ikasturtearen hasiera: **2013/09/16**

Izen-ematea **2013/09/14a** baino lehen:
MATRIKULA DOHAINIK



Koskontako bidea, 11, behea - LESAKA Tel. 948 637 135

E-mail. info@acornlanguages.com

www.acornlanguages.com



2011n sortu zen Goierrin (Gipuzkoa) GoiEner irabazi asmorik gabeko kooperatiba, energia berriztagarrien erabilera sustatu eta energia-ren kontsumo arduratsua bideratzeko. Orain-

goz, merkatuan energia garbia erosi eta bazkideen artean saltzen dute. Gerora, energia sortzeko aukera ere mahai gainean dute. Euskal Herri osora ari dira hedatzen eta dago-

eneko 500 bazkide erabiltzaile dituzte eta horrez gain, gero eta bazkide kolaboratzaile gehiago. Tartean dago Berako Udala, eta Leitzakoarekin elkarlanean ari dira.

Joanes MAIZA | GoiEner energia kooperatibako sustatzailea

«Gizartea sentsibilizatu eta tokiko ekonomia soziala bultzatu nahi dugu»

G. PIKABEA

Zein da GoiEnerren helburu nagusia?

Eredu energetikoa aldatzea. Gaur egungo eredu energetikoa erregai fosiletan edo CO₂ isurtzen duten sistemetan oinarritua dago: ikatz zentralak, gasarenak, fuel-olio zentralak, nuklearrak... Argindarra sortzeko horiek dira sistema zentralizatuak. Guk eredu hori aldatu nahi dugu eta jendea sentsibilizatu. Aldaketa klimatikoaren eta krisiaren aurrean, irtenbidea argindar sorkuntza deszentralizatzea da eta deszentralizazio hori energia berriztagarriekin egin daiteke, tokian tokiko baliabideak aprobetxatuz: ura, basoa, eguzkia edo haizearekin.

Kooperatibak energia berriztagarria erosten du merkatuan eta hori eskaintzen dio bazkideari. Azaldu...

Kooperatibak energia elektrikoa merkatuan erosten du, eta erosten dugun argindarraren jatorria berriztagarria izan go dela bermatzen dugu, plakatik sortutakoa, hidraulika zentraletik sortua, eolikoetatik ateratakoa... Argindar hori gure bazkideentzat komertzializatzen dugu eta ziurtagiri bat ere izango du jatorri hori bermatuz. Hasi- siera batean, energia berriztagarrien erosketak egingo dugu. Eta epe er-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Joanes Maiza, GoiEner energia kooperatibako sustatzailea.

tanean edo luzean, energia guk sortzeko azpiegituraren bat egin nahi genuke. Baina hori bi aldiz pentsatu beharrekoa da. Erreforma elektrikoa, energia berriztagarrientzako laguntzak, amortizazio epeak... kontuan hartu behar dira, eta horien arabera proiekturik eraginkorrenak bilatzen saiatuko gara. PSOE eta PPko gobernuek energia berriztagarrien azpiegiturarako diru laguntzak murriztu egin dituzte eta gero eta garestiagoa da eraikitzea, eta amortizazio epea ere luzeagoa da. Gizarteak argindar berriztagarria eska dezala bultzatu nahi

ENERGIAREN EKOIZPENA
«Hasi- siera batean, energia berriztagarrien erosketak egingo dugu. Epe ertainean edo luzean, energia guk sortzeko azpiegituraren bat egin nahiko genuke. Baina hori bi aldiz pentsatu beharrekoa da. Gero eta garestiagoa da energia berriztagarrien azpiegiturak eraikitzea eta amortizazio epea ere luzeagoa da. Gizarteak argindar berriztagarria eska dezala bultzatu nahi dugu kontsumo kooperatibaren bitartez.»

dugu kontsumo kooperatibaren bitartez. **Espainiako Gobernuak energiaren merkatuan egin nahi dituen aldaketak aipatu dituzu. Nola eraginen diete energia kooperatibei?** Legearen bitartez, gero eta gehiago jotzen dute enpresa txikien aurka. Alde batetik, merkaturatzeko garaian, zergaren edo peajea edo kuota bidez zailtasunak jartzen dizkigute. Peajeak komertzializadora txikiok enpresa handien [Iberdrola, Endesa...] sarea erabiltzeagatik ordaindu behar dugun kuota bat dira. Ordainketaren baldintza hori gero eta zai-

lagoa da. Gero eta garestiagoak dira, aurretik ordaindu beharrekoak... Eta argindarra sortzeko garaian ere gero eta oztopo gehiago ditugu. Enpresa handiek amortizatu gabe dituzten instalazio termikoak dituzte, eta argindarraren kontsumoa jeitsi egin delako instalazio horiek geldirik daude. Instalakuntza horiek geldirik egoteagatik dirutza kobratu nahi dute eta diru hori berriztagarri- rei kenduz iritsiko zaie. Energia berriztagarrien azpiegiturak bultzatzeko dirulaguntzak kendu egin dituzte eta diru horien enpresa handietara doa haien amortizazioak bermatzeko edo haien azpiegiturak altxatzeko. Gaur egun, ez dago berriztagarrientzako inongo laguntzarik. Beraz, argindarra sortzeko garaian ere zailtasunak badira. **Zein dira GoiEnerren erronkak?** Alde batetik, gizartea sentsibilizatzea eta bestetik, tokiko ekonomia soziala bultzatzea tokian tokiko proiektuen bitartez, proiektu horiek aurrera eramateko bertako industria erabiliz. Horren adibide da Berako kasua. Berako Udalak, bertako baliabideekin, hau da, basoen bitartez, lanpostu berriak sortu nahi ditu basoak garbitzen eta biomasa sortzen, eta biomasa hori erabli nahi du gasaren ordez.

KIROLA → ESKUBALOIA

20 urte egin ditu Sarako Urtxintxak elkarteak nesken artean eskubaloia zabaltzen

Sei taldetan banatuta, 70 neska mugiarazten ditu eskubaloiak Saran

Duela 20 urte eskubaloia taldea sortzea proposatu zuten lagunartean Saran. Huraxe izan zen abiapuntua eta gaur egun 70 neska inguruk jokatzeko kirol honetan

Saran. Eskubaloia eskola eta adinaren arabera banatutako bertz bertz talde dira, eta horietatik musutruk eta borondate osoz zortzi entrenatzaile arduratzen dira.

G. PIKABEA

Gutti batzuk ezagutzen zuen kirola izateko, herritarren artean benetako afizioa izatera pasatu da eskubaloia Saran. Lagunarteko ideia bat izan zen 1993an Sarako Urtxintxak nesken eskubaloia elkarrean abian paratu zuena.

Eskubaloia inguruko jakintza handirik ez izanagatik, ez zen motibaziorik falta izan eta horri esker, Sarako Urtxintxek 20 urteko ibilbide oparoa egin dute. Talde bakarra zen orduan, eta 20 urte beranduago, bertz talde eta eskubaloia eskola di-

ra. Gaur egun, eskubaloia erabat errotua dago Sarako nesken artean eta horren lekuko da jokalaria kopurua. Guztira 60-70 neska mugitzen ditu urtero eskubaloiak Saran. Berezitasuna hori ere bada, neskek baino ez baitira aritzen eskubaloian. He-



Hogei urte daramazki lanean Sarako Urtxintxak eskubaloia elkarteak.

rrian ez da sekula mutilen talderik izan.

Hutsetik hastea ez zen erraza izan. Halaxe kontatu digute Joana Guerendiain eta Elodie Garat saratarrek. Senioarren taldeko jokalaria dira, ttikitatik ezagutu dute eskubaloia eta entrenatzaile ere badira: «Hastapenak zailak izan ziren, neskek ez zuten kirol honen inguruan gauza handirik ezagutzen, baina motibazioa bazuten eta Ahetzeko ekiparen sostengua eta bi gizonen laguntza ere izan zuten». Taldea sortu eta hurrengo denboraldian, 1994/1995ean, neskek beren entrenatzailea atzeman zuten: Patxi Zamora. «Honen eta boluntarioen laguntzarekin elkarteak altxatu zuten», azpimarratu dute Guerendiain eta Garatek.

Ahaleginez betetako bi hamarkada izan dira eta horretan boluntarioen laguntza ezinbertzekoa izan da, tartean entrenatzaileen lana, musutruk aritzen baitira. Zortzi lagunek osatzen dute gaur egun en-

trenatzaileen taldea: eskubaloia eskolako entrenatzaileak Pantxika Mortalena eta Joana Guerendiain dira, 11 urtez azpiko taldekoa

HASTAPENA

«Hastapenak zailak izan ziren, neskek ez zuten eskubaloia inguruan gauza handirik ezagutzen, baina motibazioa bazuten eta Ahetzeko ekiparen sostengua eta bi gizonen laguntza ere bai»

Joana GUERENDIAIN eta Elodie GARAT

Sarako Urtxintxak elkartearen jokalaria eta entrenatzaileak

DATUA

8

ENTRENATZAILE dira Sarako Urtxintxak elkarteak, 70 jokalaria zuzentzeko. Guztiek musutruk egiten dute euren lana.

BULEGO BERRIA

Uda honetan bulego berria izendatu dute eskubaloia elkarteak



ARGAZKIA: JEAN POUYET

Sarako Urtxintxak sortu zenean, elkartearen lehendakaria Marie Pierre Hiribarren izan zen, Veronique Iturria diruzaina eta Christine Lissayou idazkaria. 20 urte hauetan aldaketak izan dira bulegoko ardurutan, eta berriki ere talde berria izendatua izan da. Azken urteotan, Sabine Etxebeste izan da lehendakaria, Aline Dubacque diruzaina eta François Cahulet idazkaria. Uztailaz geroztik, Jean-Pierre Iacopino da lehendakaria, Christophe Petit lehendakariordea, Laure Garat diruzaina eta Anais Gorosurreta, Mikela Gerard eta Elodie Garat idazkariak. Argazkian lehengo eta oraingo bulegoko kideak.



ARGAZKIAK: JOANA GUERENDIAINEK UTZITAKOAK

Anais Gorosurreta, 12 urtez azpikoaren taldeko arduradunak Marina Goienetxe eta Elodie Garat dira, 15 urtez azpikoena Christophe Petit, 18 urtez azpikoena Marion Iramuno eta seniorren taldeko entrenatzailea Txomin Bereau da.

Aurrekontu ttikiarekin egiten du egunerokoa Sarako Urtxintxak elkarteak. Eta hori finantzatzeko udan hainbat ekitaldi antolatzen dituzte: erromeria, indar jokoak edota kantaldiak. Urtean zehar egutegi bat ere kaleratzen dute, baita pastizak saldu ere. Hala ere, «jokalaria eta bulegoko kideen lizentziekin sartzan da diru gehien», azaldu digute Guerendiain eta Garatek.

DENBORALDI BERRIA

20 urteak behar bezala ospatzeko uztailaren 27a aukeratu

zuen eskubalo elkarteak. Egun berezia izan zen oraingo eta lehengo jokalarien artean eskubalo partidak ikusteko aukera izan baitzen, baita jokalarien aitak jokoan ikusteko modua ere. Eta ilunabarrean 150 lagun elkartu ziren paella jatera. Egurenaren erantzunarekin «biziki kontent» gelditu zen bulego berria.

Ospakizunak alde batera utzita, denboraldi berriari begira jarriak dira orain jokalaria eta entrenatzaileak. Seniorrak eta 18 urtez beheitikoak abuztuan hasi ziren entrenatzen eta gainerakoek hilabete honetan hasiko dituzte entrenamendua. Seniorrak astean bi aldiz entrenatzen dute, asteazken eta ortziral gauetan. Bertze guztiak astean behin biltzen dira 11, 13 eta 15 urtez azpikoak asteazkenetan, eta eskubalo eskola eta 18 urtez beheitikoak ortziraletan. Ttiki-ttikitatik jartzen dira neskek eskubaloiarekin harremanetan. Eskolan eskubaloia deskubritzea dute helburu, jokoaren bitartez. Lehen pausoak eman eta legeak ikasten dituzte neska ttikiek. Eta hortik aitzinera poliki-poliki kirola gehiago ezagutu eta goiti egiten dute.

Joan den urteko denboraldia ona izan zen talde guztiarentzat. Are gehiago, 15 urtez azpikoak eta seniorrak euren multzoan finalerdietara ailegatu ziren, nahiz eta gero galdu. Saso berriari begira, berriz, «talde bakoitzaren helburua txapelketan ahal bezain urrutien joatea izanen da eta zergatik ez, final bat irabaztea ere bai», adierazi digute Guerendiain eta Garatek. Hala bada, 20 urteko ibilbidea garaipen batekin borobilduko dute denboraldi honen hondarrean.



11 urtez beheitikoen taldea.



13 urtez beheitikoen taldea.



15 urtez beheitikoen taldea.



18 urtez beheitikoen taldea.



Eskubalo eskolako neskek.



Seniorren taldea.



Nire txanda
Fernando ANBUSTEGI

Uda-kirofanoa

Uda akitzen ari da. Batzuk konten eta bertze batzuk triste egonen dira. Orain errehabilitazio garaia hasten da edota gainbeheraren akabera baieztatu. Izan ere, kirofano baten gisan har daiteke uda. Gaixorik dagoen baten operazio gisa. Kirofanoan sartzea irteera operazioa litzateke, hasmenta. Kirofanotik ateratzeko momentua berriz itzulera operazioa. Tartean oporrak, sendatze aldia edo ebakuntza momentua, gaitz guztiak osatzeko bali duen ebakuntza. Edo-ta gaitza gibelat bota ezin daitekeen gaixotasun larria dela baieztatze garaia, izan ere oporrak guztiak ez dira guztiz betegarriak izaten eta ebakuntza guztiek ez dituzte emaitza positiboak uzten. Orduan, oporrak itogarriak eta gaitzak sendaezin bilakatzen dira. Zuek errehabilitatzen ala itotzen ari zarete?

«Kirofanoan sartzea irteera operazioa litzateke, hasmenta. Kirofanotik ateratzeko momentua berriz itzulera operazioa»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Udan omen gaude oraindik

Seme-alabak ikastetxerako bidean lagundu ondotik, solfeo, judo, txistu eta pilotan matrikulatu ditut. Emazteak aerobiken izena eman behar duela eta zergatik ez naizen ingelera ikasten hasten galdegin dit. Ezetz diot, *Munduko garagardo latak* kolekzioaren lehen faszikuloarekin batera oparitzen duten *Bavarian Ale* dastatzeko jertsea itxiz. Nork dio oraindik udan gaudela?

Nabarmentzekoak



Fernando ETXEGARAI
Koxkor biltze txapeldun

Azkeneko bi urteetan azpitxapeldun izan ondotik, berriz ere Euskal Herriko koxkor biltze txapelketa irabazi du Larraintzarren, zortzigarren aldiz. Nafarroakoa ere irabazi zuen.



Thierry ALBIDE
Gorramundi erakusketa bitxia

Artista elizondarrak Gorramundi izeneko instalazioa inauguratu zuen abuztuaren 10ean Gorramundiko zaintzako etxolan. Irailaren 7a bitarte egonen da ikusgai erakusketa berezia.



Luis Mari RETEGI
Berako bestetan omendua

Iaz Kirol Merituaren Zilarrezko Domina eman zion Nafarroako Gobernuak eta aurtten Berako Udalaren, Gure Txokoaren eta Bortziriak pilota eskolaren omenaldia jasotu du bestetan.

Atzera begira → 2003.09.04 / TTIPI-TTAPA 357 zbk.



Ahate jokoa, Sarako plazan oraindik bizirik dagoen ohituraz

Erdi Aroko testuetan, ahate jokoa gure inguruko hainbat lekutan egiten zena- ren testigantza aurki genezake. Gaurko egunean herri guttitan ospatzen da. Saran etenik gabe atxiki da aspaldiko urteetan. Manu Fagoaga saratarrak duela 10 urte zioenez, «Saran ez da sekulan gelditu, lehenago Animainian egiten zen, Istilarte inguruan, bigarren gerla arte. Gero Lehenbiskain ere egin zuten denbora batez, eta ondotik lhalarren izan zen, nik han ezagutu dut, hortxe bartz edo sei urtez egin zuten. Eta azkenean Sarako plazan hasi ziren egiten duela bederen hogohi bat urte».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredaktore burua Gurutz Pikabea Erredakzioa Eneitz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola Berriemaileak Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2013ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria40€	Europa59,50€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka34€
Ipar Euskal Herria59,50€	Amerika eta Australia124€	Leitza17€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Bortziriako Euskara Mankomunitateak diruz lagundua

Kolaborazioak

WhatsApp? What's up? Zer gertatzen da gure gizartean?

Ainara MAIA URROTZ

Facebook gisako giza-sareen garaietan, *face to face* edo aurpegiatara begiratzeko beldur gara, eta nahiago dugu *zrmdz?* idatzi, aspaldiko lagunari ongietorri-besarkada eman baino. Ahaztuz norbere egoaren harrokeria, ez ote gara umiltasunez elkarrengana begiraden eta keinuen bidez hurbiltzeko gai? Zer gertatzen zaigu? Informazio anitzaren garaiotan, komunikatzen ahazten ari zaigula iruditzen zait, eta komunikazioa baino, nahiago dugula milioika informazioaren aroa da, bai, baina ahaztu zaigu postontzi betearen goizero irekitzearen zirrara postariari egunonak eman ondoren. Ahanzturaren amildegira jaurti dugu lagun minaren eta maite gaituen ororen ahotsa, letra idatzi elektronikoaren mesedetan.

Inkomunikazioaren truke, kobertura-uhinen bila gabiltza uneoro zoratu beharrean eta norberaren bakardadearen zuloan hondoratzen gara, jendez inguraturik egon arren. Informazioaren eta inkomunikazioaren garaiotan, duela zazpi urte lagun min poeta *big* batek sms bidez idatzi zidana oroitzen dut orain bihotzez:

itzul gaitzezen gure arbasoen garaira, mobilik gabe aurrez aurre maiteminduen hitzordua jarriz.

XXI. mendean, informazioaren eta inkomunikazioaren gizartean, nik oraindik eskutitz pertsonalak idazten eta igortzen ditut, nahiz eta erantzun bakan batzuk jasoa era berean. Eguneroko begiratzen dut postontzian, eta irekitzen dut eskutitz bat aurkitzeko itxaropenez. Nahiago dut telefono-dei bat egin maite dudana pertsona nola dagoen sentitzeko haren ahotsen.

Facebook, Twitter, Gmail, Hotmail, Yahoo... *what's app?* Zer gertatzen da? Informazio anitzaren bide asko dago, eta ni galtzen naiz, gaizki-ulertuak sortzen baitira ahotsa entzuten ez delako eta soilik *mxzprrd* gisakoak dezifratu behar ditugulako. Basoaren erdian ene bihotzaren alde iluna argitzen didan maitea aurkitzen dut GPSrik gabe. Oihanaren erdian, naturaren bihotzean, ez dut koberturarik aurkitzen, baina konektaturik nago bizidun eta zentzu guztiekin, armonia bizian animaliekin eta landareekin, eta ama naiz erditu gabe ere, oso-osorik.

Zer gertatzen zaigu, irakurle? Entzun dezagun bihotzak esaten diguna eta ez gizarteko arauak; izan ere, munduan dagoen gauzarik sakratuena BIHOTZA baita, arrazoirik gabe ere sentitzea denok goazela maitasunaren ibai berean itsasorantz. Gainerako guztia arinkeria eta hutsala da, gainerako etiketak eta muga guztiak hutsalak dira.

«Inkomunikazioaren truke, kobertura-uhinen bila gabiltza uneoro zoratu beharrean eta norberaren bakardadearen zuloan hondoratzen gara, jendez inguraturik egon arren»

'Baztan berri bat' galaxian

Javier QUINTANO IBARRONDO (Elizondo)

Zugarramurdiko sorginek desagerrarazi al zuten Elizondoko plazako kioskoa? Baztango arratsalde sargori hartan, beroarekin lehertu, eta harriari gaitzen bat sartuta hondatu ote zen pixkana? Urakanen batek eraman ote zuen gauzez? Eta, hala bada, saiatu al dira hura bilatzen ingurumarietan? Udal gobernua saiatu al da igarle jakintsuren batekin egoten, kioskoa non ote den jakiteko? Gaztigatu al die Foruzaingoari eta Guardia Zibilari nondik norra desagertu den kioskoa? Herritar batzuek diote Beleteko zeru gainean dirdira bitxiak ikusi zituztela, zortzi minutu bederen iraun zutela eta orduantxe gertatu zela kontu izugarri hura, segur aski ere objektu hegalaria ezezagunen bat zela medio. Delako espazio-ko zer horiek eraman ote zuten gure kioskoa, galaxian Baztan berria eratzeko? Eta, horrela gertatu zelako hipotesirik baldin bada, armadarengana jo du inork horrelako gertakizunez okupatzen den sailak iker dezan? Arraioa, badaki inork zer gertatu den Elizondoko plazako kioskoarekin?

Gatozen epaile kontuetara: Elizondoko Foruen plaza berritzeko ideien lehiaketan puntu gehien atera zuenak (Lurra BZT, 72,85 puntu) kioskoa plazan uzteko asmoa agertu zuen, baina beheraxeago ekarrita. Horretaz landara, platano arbola batzuk ere hor uztea proposatu zuen, baita Baztango harri losak uztea ere, baina asentua erabat hobetuta. Espedientean zetozenak «proiektuaren behin betiko txostenean» kontuan hartzea komeni zela idatzi zuen udal arkitektoak. Baina ailegatu zen zorigaitzeko eguna, 2009ko abuztuaren 28a, eta lehiaketako epaimahaiak zera erabaki zuen: ideien lehiaketan bigarrena gelditu zena hautzea proiektua gauzatzeko (Billantzikotik Zortzikorra taldea, 69,24 puntu). Aldi horretan, 88,312 puntu eman zizkioten talde horri, eta hari egokitu zioten lana. Kontua zer da: lehiaketako epaimahaiak ez ziela bi kideri gaztigatu egun inportante horretan hor egoteko, baina han behar zuten nahitaez proiektua baloratzeke gainerako kideekin batean. Halabeharra izanen zen, inondik ere, falta zen horietako bat Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko Nafarroako ordezkaria izatea eta bertzea Etxeak eta Eraikinak Berritzeko Bulegokoa (ORVE) izatea. Zer zuen burutan hirigintza zinegotziak 2009ko abuztuaren akabailan? Nork erabaki zuen epaimahaiko bi arkitekto horiek ez zirela beharrezkoak arratsalde hartan? Horrelako hanka sartzea ez zen bere hartan gelditu: Iruñeko Administrazio Auzietarako Epaitegian, balio gabe utzi zuen 3. Salak Elizondoko plazaren proiektuaren esleipena (ikus *Diario de Noticias* 2013/07/21). Nolanahi den, ez dugu esperantzarik galdu: noiz itzuliko digute guhauren kioskoa eta, ordainetan, noiz lekutuko dituzte, bebingoan, gasolindegiren batetik atera dituzten burdin zati horiek tokatzen den tokira?

Irakurleak mintzo

Etxegabetzeak

Patxiku IRISARRI
ELIZAGOIEN (Etxalar)

Etxe-gabetze kasu ezberdin asko daude. Alokairuan bizi dena eta ezin ordainduz dabilena, bigarren etxearen gabetzearen ondorioz lehen-dabizikoa eta oinarrizko eskubidea dena galtzeko arriskuan duena (abala gisa izateagatik), enpresa muntatu eta etxea abala bezala izanda galtzeko arriskua duena, baita bere oinarrizko etxea galtzeko tesituran dagoeneraino (kasu gehienak). Beraz, etxe-gabetze guztiak ez dira berdinak, eta aldi honetan azkeneko kasuan zentratuko gara.

Errealitate hauek norbanako kasuetan ematen dira. Eta norbanako hauentzako oso prozesu traumatikoak dira. Baina norbanakoen kasuak badira ere, izaera kolektiboa dute. Oinarrizko eskubide baten gainean ematen den urraketa delako eta eskubide hau bermatzeko politika eredu zehatz baten ondorioa delako. Hau da, izaera kolektiboa duen arazo politikoa dago.

Etxearen mailegua ezin ordaintzearen ondorioz etxe-gabetuak izan behar diren pertsonendako oso prozesu gogorra eta bortitza da. Euren bizitza proiektu osoa zailantzan eta kolokan jartzan dien egoera baten aurrean aurkitzen baitira. Sarritan, jendartearen epaiketa sozialaren aukeraren ondorioz lotsa sentitzeraino heltzen direlarik. Estigmatizatua iza-

tearen beldur izan ohi dira. Eta gehienbat, baka-rik. Munduak bizkarra eman izan balie bezala.

Ondorioz, prozesu hau isilpean eramaten dute. 'Armairua' izenarekin ezaguna den efektua. Ez dute laguntza eskatzeko joerarik (ez dakite non eskatu dezaketen ere), eta egiten dutenerako, kasu gehienetan etxegabetzearen prozesuaren azken faseetan da.

Hau horrela dela jakinik, oso argi eduki behar dugu arazo kolektibo baten aurrean bagaude ere, egoera oso konplexuak diren norbanakoen kasuak direla. Beraz, lehen-tasun nagusia pertsona hauek laguntzea izan behar du, etengabe euren borondatea errespetatuz eta bide osoan zehar pertsona mailan zainduz eta babestuz.

Etxe-gabetuak izango diren pertsonak, subjektu aktibo izateko beharra ere azpimarratu behar dugu. Euren egoeraren aurkako borrokan aktibista bilakatu behar dute. Arazoaren konponbidearen parte. Kaltetueta-ko pertsonen inplikazio-tik soilik aurre egin baitakioke etxe-gabetze bati.

Eta artikulu hau zertarako? Baztan-Bertzarrena-Malerreka-Bortzirietan ez dagoelako etxekaleratzeen aurkako plataformarik. Iruñerako bidea hartu behar dugu, baina ziur nago bada-goela jende kontzientziatua zonaldean eta zerbait antolatzen ahal dugula denen artean, kaltetueta-ko pertsonen aktibismo-rik abiatuta.

Kontzertu berezia Etxalarren

Etxalar artar batzuk

Abuztuaren 9a zen. Ez dakigu inoiz organo kontzerturik egin den Etxalarko elizan. Organoa zaharberitzea zelebratu beharrek eskaini zuen aitzakia eta aukera. Organo irakasle eta kontzertu emaile den Joxe Benantzi Bilbaok egin zuen organo-jotzaile lana.

Bi gauza aipatuko genituzke, guretzat ezustekoak izan zirenak, ezustekoak eta pozgarriak. Bat, jendearen parte hartzea, ia bete baitzen eliza. Herritarrez eta inguruko herrietako jendez. Bigarrena, organoak agertu zigun bere barnean daukan musika tresnaren aberastasuna, eta bata bertzearekin elkar-tzean lortzen dituen hainbat eta hainbat soinuz ezberdin gozagarri, organo jotzaileari esker, noski. Horrelako tresna ongi zaintzea merezi duela erakutsi zigun kontzertu horrek. Etorri zirenek, musikaz gozatzeaz gain, kontzertuaren gastua hornitzeko eskuzabal-tasuna ere erakutsi zuten. Zorionak denoi.

Bazterketa bat dela ikusten ez dugunean

Elurte IRIARTE BAÑEZ

Uda akitzen ari den hontan bestaz-besta ibiltzeko aukera izan dugu eta hauetan emakumeen

eskubideak urratuak izaten direla ikusteko ere bai. Gauzak aldatzen ari badira ere bestak nekez dira parekideak. Denak konforme gaude jarrera bazter-tzaileak gaitzetsi behar ditugula eta gertatzen diren bidegabekeriak salatu. Etxean edo hurbil pasatzen zaigunean, berriz, zalantzak sortzen dira: erasotzaileak ezagunak direlako, matxismoa kulturaren eta norbanakoan errotua dugulako, presio soziala sobe-ra handia egiten zaigulako... eta ondorioz hau dena onartzea sobe-ra zaila egiten zaigu. Horregatik eraso anitz salatu ga-be gelditzen dira, bazter-keta bultzatzen da eta in-darkeria handitu. Ezin du-gu horren konplizeak izan. Nik soilik ez dut nahi.

Hurbiletik bizitako egoera batek lerro hau-ek idatzerat bulkatu nau. *Baztango Mutildantzari-ak* taldea sortu eta ber-tze edozein talde beza-la tratatu dute bai Baztan-darren Biltzarra taldeak nola Elizondoko herriko arduradunek.

Baztandarren Biltzar-rak bestarako atera zu-en aldizkarian bere his-torian zehar izan diren gorabeherak eta ga-tzakak idatziak utzi nahi izan ditu gerorako. Mutildantzen inguruan ber-riz egiten duen aipamen bakarra neskek 1980. ur-tean lehen aldiz parte har-tu zutela da. Ez du aipa-tzen Baztandarren Bil-tzarrek Mutildantzak ez egitea erabaki zuen ur-tea, edo hausnarketa ba-ten ondotik bere progra-man berriz sartzeara erabaki zuen urtea, plazarik

jendetsuena lortuz. Aur-ten mutildantzaren ema-kumearen partehartze-aren alde egindako testua aldizkaritik kanpo utzi du-te, *Baztango Mutildan-tzariak* talde diskrimi-natzailearen testu baten ondoan jartzea onartu ez delakotz.

Elizondon berriz azke-neko urteetan hartutako erabaki garrantzitsuen ondotik nire ustez atzera-pauso bat egin du maila berean paratu nahi izan dituelako *Baztango Mu-tildantzariak* taldea eta *Plazara Dantzara* herri eki-mena. Bestetako progra-mako aitzin solasean *Pla-zara Dantzara* ekimenak ekarri duen jarrera eta go-goa eskertzen dute, bazter-tzaile eta erasotzai-lea den talde horri esker-tzen zaien modu berbe-rean. Modu honetan dis-kriminazioari zilegitasu-na ematen zaio.

Mutildantzak plazako dantzak dira eta emaku-meak sartzeagatik ba-tzuk ez dute dantzatu na-hi. Aukera bat da, bere ondorioekin. Onartezina dena da hori bulkatzen duen talde bat normalta-sunez hartzea: mutildan-tza herrikoiekiko boiko-tera animatzen duena, emakumeen partehar-tzearen kontrako kanpai-na egiten duena, eta do-trinamendua egiten due-na. Talde bazter-tzailea da, ez ditu emakumeak dantzan nahi. Hau da errealitatea! Bidegabe-kerien eta eskubide urra-keten aitzinean ezin da neutrala izan.

Emakumeak Mutil-dantzaren nahi ez izatea emakumeak bazter-tze-aren alde egitea da.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttiipi.net

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57

Prentsatik bildutakoak



«Gaur egungo krisi egoeraren eraginez gehiago ikertzera eramaten zaitu eta gai ezberdinak sortzera, batez ere udako ikastaro bat eman eta dagoeneko erakusketak egiten ari direnez bereizteko».
«Erran nauten gauzarik politena, nere pinturak bizitzeko gogoia ematen duela da, beharbada ni ere arrunt baikorra naizelako»

Juan Carlos PIKABEA
Margolari lesakarra
D. NOTICIAS 2013.08.08

«Hemen zeudenean, gure aitak ez zuen bere arrebaren tabernara botila bat ardo eramatera joan nahi. 'Nola, gizona erosketak egitera?', zioen. Ameriketara, konpresak erosten zizkion hango supermerkatuetan. Bazekien han normala zela. [...] Artzainak hona etortzean, mentalitate aurrerakoi hura hona iritsi eta aurrerapen sozialak egin ziren».

Laura IGANTZI
Euskal Artzainak Ameriketara
GAUR8 (Gara) 2013.08.10

11 galdera labur

Nor da Rakel Ariztegi?

Oizko andre bat, bi haurren ama. Nahiko pertsona arrunta naiz.

Zein afizio dituzu?

Musika jo eta entzutea, belar gainean eserita irakurtzea eta paseoan ibiltzea.

Belarriak goxatzeko gomendioen bat?

Euskal musika zalantzarik gabe. Garai bateko abeslariak eta trikitixa ditut gustokoen.

Belar gainean liburua hartuta lasaitzea helburu?

Misteriozko liburuen zalea naizenez, lasaitu beharrean liburua bukaerara iritsi arte tentsioa mantentzen badu hobe.

Ibilbide bat gomendatu beharko bazenigu, zein?

Oitz mendian kokatua dagoenez hartzen duzun bidea hartuta denak ederrak dira. Aunitz gustatzen zaizkit Ituren aldera joaten den mendi bidea eta baserrien inguruetatik doazenak.

Bestazalea zara?

Bai pila bat gustatzen zaizkit. Musika, dantza... sortzen den giro horretan gozatu egiten dut.

Zerk bihurtzen ditu berezi Oizko bestak?

Batez ere, herritik urrun bizi diren herritar eta senideak elkartzeko egunak izateak. Mahaiaren bueltan sortzen den giro hori da niretzat bereziarena.

Oizko bestetatik gehien gustatzen zaizun ekitaldia?

Egunez, umeen laxoa partidak eta esku pilotakoak. Eta gau eta egunez, dantzak eta musika.

Eguneko bestazalea edo gautxoria zara?

Gautxoria naiz baina egunez ere ez dut hutsik egiten. Denetara moldatzen gara.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Nahiko iluna ikusten dut, baina gerrek ez dute ehun urte irauten eta pentsatzen dut pixkanaka egoera aldatuko dela.

Amets bat?

Egoera zaila bizi dutenek arnas hartzeko aukera izatea.



Rakel ARIZTEGI → Oizko Martiornea landa-etxeke jabea

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

J. RAMOS
zolak akutzilatuta eta barnizatzen dittut
Sakelekoa: 637 836 023 - LESAKA

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

zalain
JATEETEA - RESTAURANTE
Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com

udana
salazones
UNE-EN-ISO 9001
IAC
SISTEMA DE CALIDAD CERTIFICADO
SCC-02-0199
Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztua
Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prest
Alkaiaga Ind. - Banarta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tinoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 550

Egin zaitez
ttipi-ttaparen
harpidedun
ttipi-ttapa
(0034) 948 63 54 58

GIZARTEA

AZPIEGITURAK → UZTAILAREN 25EAN

Bidasoko Bide Berdean Alkaiagako lur azpiko pasabidea zabaldu dute

Irailean bukatuko ditu lanak Bertizko Partzuergoak

TTIPI-TTAPA

Bertizko Turismo Partzuergoa maiatzean hasi zen bide berdean lanak egiten. Horretarako 2009an lortu zuen dirulaguntza Europatik FEDER (POCTEFA) fondoetatik eta Nafarroako Gobernuako Turismo Saitetik. Irailean bukatuko dira lanak, baina uztailaren 25ean, zatiarik zailena eta garestiena, Alkaiagako lur azpiko pasabidea irekidute.

Egin diren lanen artean inportanteena da 121-A errepidearen azpiko pasabidea. Bertze lanak ere izan dira: tuneletan argia jartzea, Legasako lur erorketa jasotzea, zolako zuloak konpontzea, Igantzin bidea desbideratzea erreka aldera, Alkaiagan errepidetik sartu ordez, bide bat ireki da erreka ertzean eta parking bat egokitu da En-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Bide Berdea N-121-A errepide azpitik pasatzen da orain Alkaiagan.

darlatsan. Izan ere, kotxeak ez sartzeko sarrera batzuk ixtea aurrakusten da. Oraindik seinalizazio osoa, zerrakurak eta ataka batzuk jaritzea falta da. Irailean bukatuko dira lanak, baina Santiago egunean, oinezko pasabidea bukatuta zegoenez, ireki egin zuen Partzuergoak jendeak probestu ahal izateko. Bide Berdearen erabiltzaileek gustora erabili dute pasabidea udan.

BIDE BERDEAREN ARAUTEGIA

Bertze aldetik Bertizko Turismo Partzuergoak Bidasoko Bide Berdearen arautegia landu du. Ekainaren 26 eta Uztailaren 18an egindako batzar orokorretan zirriborroa aztertu zen, baita eztabaidatu eta onartu ere eta orain ibilbideko udalera bidaliko da behin behiniko onarpenerako eta publikoki erakusteko, baita alegazioak aur-

kezteko epe bat irekitzeko. Arau batzuk iaz PSISarekin batera onartu ziren eta dagoeneko indarrean daude. Oinarritzko arauak dira oinezkoa dela bide berdea baina derrigorrez kotxez pasatu behar direnei (auzokideak eta zerbitzuak) errespetatu behar zaiela. Txakurrak lotuta eraman behar dira eta abiadura orduko 20 kilometrokoa dela dira neurri inportantetarikoak.

BERTIZ

Añeriko lorategia berreskuratzeko lanak aurtan akituko dituzte

TTIPI-TTAPA

Añeriko Lorategian egiten ari diren lanak aurtan akituko direla aurrakusi dute, hura errekuperatu eta Bertizko Natur Parkeko bisitariak erabili eta goza ahal dezaten datoren urtetik aitzinera. Horretarako, 2013an gaizki osatutako edota gaixo dauden zuhaitzak mozten segituko dute, bideak mugatzen, lurreko eskaierak konpontzen, eta heskaiak inauten.

Bertizko Parkeko erabilera publikoari dago-kionez, berrikuntza gisa, ingurumen-boluntariotzaren kontzeptua sartu nahi da eta, horretarako, izan daitezkeen jardueren proposamen bat eta boluntarioen prestakuntza landuko da. Bertzalde, Bertizko Natur Parkeak gidatutako ibilbide-zerbitzuen eskaintza handituko du Lorategi Botanikoaren eta Baso Mintegiaren arteko ibilbide berria abian jarritz.



GIZARTEA → GIZARTE ZERBITZUAK ETA UDALA

Jubilotekak aste honetan irekiko ditu berriz ateak

Astearte eta ostiraletan eskainiko da zerbitzua Lagun Haundiak elkartearen

ka), mentalak (kontzentrazioa, harreta, kodifikazioa...) eta sozialak (ariketak taldean, taldeko kide sentitzeko, isolamendutik ateraz...) eginen dituzte.

Entrenatzaile bila

Gure Txokoatik jakinarazi dutenez, entrenatzaileak eta laguntzaileak behar dira kadete, alebin eta benjaminen futbol taldeak osatzeko. Guraso eta jokalariei ohiegi egin diete bereziki deialdia.

Aurrematrikula Musika Eskolan

Aste honetan, irailaren 2tik 6ra, izanen da Isidoro Fagoaga Musika Eskolan aurrematrikulazioa egiteko aukera, 09:30etik 13:00etara bulegoan. Haur eta helduentzako eskaintzak izanen dira ikasturte honetan ere, solfeo, musika-tresna eta abesbatzako klaseak.

TTIPI-TTAPA

Udako geldialdiaren ondoren, astearte honetan paratu dute berriz martxan Jubiloteka zerbitzua, Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak Udalaren laguntzarekin bultzatua. Ekainera bitarte, astearte eta ortziraletan elkartuko dira Lagun Haundiak elkartearen egoitzan, 10:00etatik 13:00etara, Ramoni Ordoki psikologoarekin.

Familiei zainketan laguntzea eta mendekotasunaren prebentzioa lantzea dira Jubilotekaren helburu orokorrak, eta horretarako astean bi aldiz bilduta, ariketa fisikoak (luzaketak, ore-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Ekitaldi andana Agerrako bestetan

Kirola eta besta bateratuz, besta ederrak ospatu dituzte aurten ere Agerrako auzotarrak. Urtero egiten duten zozketako zenbaki sarrituen berri ere eman dute: 1. saria: 0440 (Begoña janari-dendan saldua), 2. saria: 0544 (Beti Jai ostatuan saldua), 3. saria: 1.674 (Agustin Zozaia saldua).



Giro ederrean Sanesteban bestak

Jesus Alacidek Toki-Ona Bortziririk saskibalo taldearen izenean botatako txupinazoarekin hasi ziren bestak eta jasangarritasunaren aldeko herri bazkariarekin eta batukadarekin bukatu. Tartean, San Esteban eguneko dantzak izan ziren. Segurtasunaren legea betetzen ez duela eta, dantza eta pilota jaialdietan ez zen Eztegarra frontoiko goiko harmaila erabiltzerik izan, ondorioz, Gure Txokoako dantzariak bezperako jaialdia prestatzeko izandako «laguntza eskasagatik» protesta egin zuten egun handian, Udalarri agurra ukatuz. Udalak, bere aldetik, «momentu guztietan bere esku dagoena emateko prest» agertu zela adierazi du. Luis Mari Retegiri, 26 urtez pilota irakaslea izan denari omenaldia egin zioten, pilota jaialdian. Aipatzekoa da berriz ere migatutak ibili direla Herriko Etxeko Plazan, joan den urteko geldialdiaren ondoren eta kantutak eta dantzak, noiznahi eta nonahi.

Javier Manterola
Tehniko instalatzailea
Iturgintza • gasa
kalifikazioa
Tfnoa: 629449602 • BERA

Xirgil
Abete 1 - BERA
Tfnoa: 948 631 488

MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450
Erakusketa, Proiektu eta
Instalazio Elektrikoak

LESAKA

GIZARTEA → EKAINERAKO INAUGURATU NAHI ZEN

Kultur Etxea udazken hasieran ireki gogo dute

HM enpresarekin zuen kontratua eten du Udalak eta falta diren lanen lizitazioa egin du orain

Aitor AROTZENA

Behin eta berriz baldintzak bete ez dituelakoan, HM Compañía General de Construcción enpresak Kultur Etxea eraikitzeke zuen kontratua etetea erabaki du Udalak. Berez, Kultur Etxea udarako inauguratzea espero zen, baina egiteko falta diren gauza pixarrak eta azken xehetasunak eginda, udazken hasieran irekiko dela espero da.

Xeberiano Txoperena udal zinegotziak aipatu digunez, «lanen %2 edo falta da egiteko eta gero, beti gelditzen diren azken erremateak, gaiz-

ki egindako gauza batzuk moldatu, baina denbora kentzen dutenak».

HMK dituen arazoak medio, administradore konkurtsal bat dago orain enpresaren kargu. Udalak, kontratua eteteaz gain, enpresak jarritako abala exekutatu du, eta falta diren lan horiek bere garaian enpresak jarritako diru horretatik ordainduko ditu. Horretarako, falta diren lanen lizitazioa egin du eta irailaren bukaera alderako edo urri hasieran lanak bukatzea eta Kultur Etxea irekitzea espero dute.

Gas azterketetan iruzurrak

Gasaren azterketa faltsuak egiten ari direla ohartarazi du Udalak. Etxe edo baserrietara joaten dira gas azterketa egin behar dutela erranez, baina baimenik gabe. Ez da azterketa ofiziala baina jendeari kobratu egiten diote.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Kultur Etxeko lanak geldu egon dira uda partean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Udalekuetan gustora ibili dira 39 neska-mutiko

3 eta 12 urte bitarteko 39 neska-mutikok parte hartu dute aurtengo udalekuetan. Adinaren arabera, bi taldetan banatuta ibili dira. Maite Iturria, Olaia Matxikote eta Amaia Telletxea izan dira Haur Hezkuntzako taldean begirale eta Garazi Conde eta Itxaso Etxabide Lehen Hezkuntzakoekin aritu dira. Eguraldi ona izan dutenez, ekintza gehienak kanpoan egin dituzte eta erran digutenez, ederki pasatu dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

Eskolako laguntza jaso dute zortzi neska-mutikok abuztuan

Elkarrizan boluntario taldearen ekimenez, zortzi neska-mutikok eskolako laguntza jaso dute abuztuan, Ainhoa Azkarraga irakasle dutela. Honen harira, Bortzrietako Gizarte Zerbitzuetatik eta Elkarrizan taldetik adierazi dute, urteko ekintzekin segitu nahi dutela: eskolako laguntza eskainiz udan, ikasturtean zehar helduentzako alfabetatze klaseak, etxera, zahar etxe edo ospitalera joateko laguntza urte osoan... Interesa duenak 948 635036ra deitu edo ssb@lesaka.net-era idatz dezake.

IRAILAREN 13TIK 15ERA

Ibarrako nesken eta Sunbillako mutilen arteko probaren errebandtza egingen da Bittiriko bestetan

Aurten ere, ekitaldiz beteta datoz irailaren 13tik 15era ospatuko diren Bittiriko bestak. Egitarautik aipagarriena larunbatarekin egingen den giza-proba desafiota da, neskek eta mutilak elkarren kontra ariko dira.

ORTZIRALA, IRAILAK 13

- 20:00etan patata tortila txapelketa.
- 21:00etan txupinazoa eta kalejira.
- 21:30ean Txooooo! Berendu afaria.
- 23:00etatik aitzinera DJ besta.

LARUNBATA, IRAILAK 14

- 10:00etan diana txistulariekin.
- 12:00etan desafiota Bittiriako plazan. Gipuzkoako txapeldunak diren

Ibarrako zortzi neskek 500 kiloko harriari tiraka eta Sunbillako sei mutil 600 kilokoarekin.

- 14:30ean bazkaria bertsolariekin. Bazkarirako txartelak aitzinetik erositako 12 eurotan, bertzelako 15 eurotan.
- 17:00etan herri olinpiadak: Gazte Asanbladak adin guztietako jendearentzat antolatutako jolasak.
- 18:30ean apar besta.
- 19:30ean berbena.
- 23:00etan berbena

IGANDEA, IRAILAK 15

- 11:00etan haurrentzako jokoak.
- 17:30ean haurrentzako ikuskizuna.
- 18:30ean trikitixa jaialdia.



GIZARTEA → EHIZA SASOIA PRESTATZEN

Uso postuen enkantea larunbat honetan egingen da

Guztira 21 ehiza postu aterako dira enkantera

Irune eta Itsaso

Uso postuen enkantea larunbat honetan egingen da Herriko Etxeko batzar-aretoan, 12:00-etan. Garestienetatik (3.205 euro) merkeentara (900 euro), guztira 21 ehiza postu aterako dira enkantera. Joan den urtean, 40.489 euro + BEZ bildu zituen herriak larmendiko uso postuen enkantetik.

Urritzokietako bestak

Irailaren 14tik 16ra bestak ospatuko dituzte Urritzokietan. Irailaren 14an, 11:00etan txupinazoa botako dute Sainduneko zubian eta ondotik kalejira egingen dute ermitara. 11:30ean meza izanen da Santa Krutz ermitan eta ondotik auzotarrek eskainitako hamaiketako a. 18:00etan txokolatada eskainiko dute Sainduneko zubian hurbiltzen diren guztientzat. 20:30ean zingar jatea egingen dute auzotarrek zubian.

Irailaren 15ean, igandea, 11:30ean meza nagusia izanen da ermitan.

12:30ean trikitilariak kalejiran auzoa zeharkatuko dute. 14:00etan Asauaren txanda izanen da eta ondotik mus eta partxis txapelketa jokatuko dira. 17:30ean jokoak hasiko dira: lasterka bi lagun elkarri hantak lotuta, zartagin jaurtiketa eta zaku lasterketak. 18:30ean erromeria izanen da eta 20:30ean afaria. Trikitilariak afalondoa alaituko dute.

Irailaren 16an, azkenik, 09:00etan gosaria egingen dute antolatzaileek. Karpa desmuntatu eta zubi ingurua txukundu dute bestari akaberarematzeko.

14ko afarira edo 15eko bazkarira joan nahi duenak 948 635134 edo 948 635110era deitu behar du irailaren 10a baino lehen.

Ttipi-Ttapatik zuzenketa

Aitzineko alean, Lurrizti Ederreko bidearen lanen berri agertu zen, baina obraren gastuan eta ordaintzaileen artean akatsa egin zuen TTI-PI-TTAPAK. Denetara 22.238 euro gosta da eta auzotarrek %8 ordaindu dute, egur loteen jabeek %23,33 eta gainerakoa Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren arloan.



ARGAZKIAK: MATTIN ZELAIETA, JAIONE IRIGOIEN, JABIER IRIARTE

Andremariak

Giro ederrean joan dira aurtengo Andremariak. Eguraldi ederra lagun jende andana hurbildu zen ekintza desberdinak ikustera. Batzuk aipatzekotan bezperako herri afaria, herriko gazteen arteko kirol desafioa, Andre Mari eguneko dantza saioa, herriko musikarien saioa eta Asua izanen genituzke.



ARGAZKIA: MARI LUZ ARIZTEGI

Larraburuko urteko ateraldia

Abuztuaren 24an Larraburua jubilatuen elkarteko 44 lagun joan ziren Añanako gatzokira. Goizean bisita gidatua egin zuten eta ondotik Guardia bisitatu zuten. Bertan bazkaldu eta tren txu-txuan herria ezagutu zuten. Ilunabarrean Iratxe bodegako ardo iturria ikusi eta herrira bueltatu ziren.

Zerbitzu berria

Herrian masajeak ematen dituen neska ti-

tuluduna dago, Mireia Malaxetxebarria. Bi aukera eskaintzen ditu; ma-

saje deskontrakturan teak eta masaje erlaxagarriak.

Lentzena
Banantzena
Mertzena
Jantzitokiak
Puzen bitzak

KaittoGorria
Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 427 514

USOA
Nekarari kooperatiba

- Bertan egindako pentsuak, bertze markak eta ekologikoak
- Ongariak - Burdin tresnak
- Insektizidak - Edariak - Haziak
- Botikak (errezetarekin)

Etxez etxeko banaketa egingen da Kalefakzioa eta ibilgailuendako gasolioa

Tel. eta Faxa: 948 63 52 14 • ETXALAR

ERREKALDE

PLAZA KONKURTATIK

PAUTXOAK

BOKATIK

TFONO: 948 630 254 BERA

ARANTZA

OSPAKIZUNAK → AUZOKO BESTAK

Eguzkialdeko auzotarrek besta eguna prestatu dute larunbaterako

Larretxea, Olasagasti eta Unai Bertizek erakustaldia eskainiko dute

Nerea ALTZURI

Ballekasko bestak uztailen eta Amabirjinak eta Arantza Rock ospakizuna abuztuaren igaroz ziren. Iraileko lehendabiziko larunbata izanik, irailaren 7a begibistan dugu. Eguzkialdeko bestak prest dira eta aurten ere, auzotarrek ez dute nolanahiko egitaraua prestatu. 12:00etan, altxafero botako dute Xabier Lejarreta eta Asier Azpiroz bertsolariak bertan direla. Auzoko trikitilariak ere momentua alaituko dute. 13:00etan, herri kirol probak izanen dira: Donato Larretxea eta Joxe Mari Olasagasti aizkolarien saioa, eta Unai Bertiz harrijasotzailearen erakustaldia.

14:00etan, bazkari ederra egingen dute eta 18:30ean Salvador Madariaga akordeoilariarekin dantzaldia izanen da. Ilunabarrean pintxo jatea egingen dute eta gauerdian berriaz, kantzontzilo, kulero eta tanga lasterketa egingen da.

Arantza Rock-eko sarituak

Abuztuaren 24an, Gazte Asanbladak antolatuta, Arantza Rock jaialdiaren 18. edizioa egin zen. Jende aunitz hurbil-

du zen herrira eta giro ederra izan zen. Antolatzaileak arront kontent gelditu dira emaitzarekin. Kaskezur, Gibelurdi- nek, Kop, Xutik eta Dj Elepuntok goizeko ordu ttikiak arte saio ederra eskaini zuten.

Boletoen zozketa ere egin zen. Lehenengo biak herrian gelditu dira: lehenbiziko saria, 0945 zenbakidun boletoa Arantza Elizondok zuen eta Euskal Herriko landa-etxe batean bi lagunentzako egonaldia berari tokatu zaio. Bigarren saria, Elgorriagako bainuetxean bi lagunentzako sarrerak, Joxe Jabier Mitxeleneri egokitu zaio 1566 zenbakiarekin. Hirugarren zenbakia, Aterpean bi lagunentzako afariari dagokiona, 1421 da, eta lerro hauek idazterakoan behintzat ez da jaberik atera. Norbaitek boleto hori izanez gero, aski du Gazte Asanbladako norbaiti abisu ematea.

Behikaka.com-eko boletoak

Aurten, bortzgarren urtez, Xorroxin Irratiak Behikaka.com zozketa egin zuen uztailaren 27an. Hiru sari eder zozketatzen ziren boletoak saldu ziren herrian, eskolako mendeurreneko bestan eta Aterpean. Tar- te honetan, herrian sari- rik izan ote den edo ez adieraziko nuela zina egin nien boletoak erosi zituzten hainbati. Hiru saridu-



ARGAZKIAK: NEREA ALTZURI

Giro ederrean joan dira bestak

Juanita Larralde eta Isabel Danboriena irakasleek botatako txupinazoarekin hasi ziren aurtengo bestak. Hortik aitzinera lau egunez giro ederra nagusitu zen, eta Arantza Rockekin borobildu zen guztia. Bestetan etorri ziren bisitari berezien artean, Jexus Mari eta Maixus aipatzekoak dira, Marta Iturriak egindako erraldoiak. Harrera beroa egin zitzairen. Gainerakoan, besta politikak eta partehartzaileak izan dira.

nak atera dira. Herrian saldutako boletoetan ez dago saririk... Beraz, hurrengorako ea suerterik izaten den. Nolanahi ere, mila esker boletoak erosi dituzuen guztiei!





PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA

Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

ARTZAIN EGUNA → NAFARROA MAILAKO LEHIAKETA

Antonio Alustiza aresoarra nagusi Artzain Zakur Txapelketan

Lehen eta bigarren postuak eskuratu ditu

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Artzain Zakur Txapelketaren 46. edizioa jokatu zen abuztuaren 26an Uharte Arakilen eta Antonio Alustiza aresoarra berriz nagusi zen, aldi honetan, *Bat* zakurrarekin. Ez hori bakarrik, bigarren postua ere beretzat izan zen, *Jai* zakurrarekin.

Bortz artzain aritu ziren lehian zortzi zakurrekin, eta tartean ziren eskualdekoak: Antonio Alustiza aresoarra *Bat* eta *Jai* zakurrekin, Pedro Ansa aranoarra *Alai* zakurrarekin, Oronoz-Mugairiko Jorge Oteiza *Azeri* eta *Arakil* zakurrekin



ARGAZKIA: NOTICIAS

Antonio Alustiza *Bat* eta *Jai* bere zakurrekin.

eta Joxe Mari Ixtilart amaiurtarra *Alai* zakurrarekin. Guztien artean, azken urteetan jaun eta jabe den Antonio Alustiza gelditu zen lehenbiziko bi postuetan. Nafarroako bere hamalagarren

txapela jantzi zuen. Are gehiago, hamar aldiz segidan irabazi du aresoarrak. 2004an eta 2005ean *Argi* zakurrarekin irabazi zuen, 2006tik 2012ra *Ttikirekin* eta aurtan *Bat*ekin. Nola diren kontuak,

azken txapel hau kenduta, azken zazpiak *Ttiki* zakurrarekin irabazi zituen, eta txapelketa hasi baino ordu batzuk lehenago hil zen *Ttiki*, *Bat* eta *Jairen* ama.

Hirugarren postua ere eskualdera etorri zen, Aranoko Pedro Ansa eta *Alai* bere zakurrarentzat izan baitzen. Laugarren postua Oronoz-Mugairiko Jorge Oteiza eta *Azeri*rentzat izan zen. Bosgarrena Joxe Mari Ixtilart eta *Alai*rentzat. Seigarrena Uharte-Arakilgo Antonio Uharte eta *Lagun*entzat. Zazpigarrena Jorge Oteiza eta *Arakil* zakurrarentzat eta zortzigarrena Antonio Uharte eta *Argi* zakurrarentzat.

Bertzelako sarien artean, Ansak hobekien jantzitako artzainaren saria jaso zuen. Lehen ere hartu izan du sari hori.

IGANTZI

XXIII. Mendi Bizikleta Ibilaldia igandean

TTIPI-TTAPA

Aurtan XXIII. aldiz Mendi Bizikleta Ibilaldia antolatu du Biltoki elkarteak. Igande honetan, irailak 8, eginen da eta haur eta helduentzako ibilbideak prestatu dituzte, azken hau, 31 kilometrokoa. Izen-ematea egun berean egin behar da, 07:30etik 08:30era bitartean. Federatuek 10 euro ordaindu behar dituzte eta hala ez direnek 15 euro. Behin izena emanda, helduak 09:00etan aterako dira eta haurrak 10:00etan. Froga ez da lehiakorra izanen.

Piedadeko bestak

Piedade auzoko bestak ospatuko dituzte larunbat honetan. Ohi-turari segituz, auzotarrak bazkaria eginen dute Iñarburu gainean.

expert **BORTZIRIAK**

%20
DESKONTUA
SUKALDE
ALTZARIETAN

KONPONKETAK
ere egiten ditugu

Bidasoa, 45 · 31780 Bera · 948 630377 · 948 631091 · info@bortziriak.com · www.bortziriak.com

ERROTAR

BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

ERROTAR

harategia

Bertako
produktuak

Eztegara, 3 - BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

ARKUPEAK

GIZARTEA → SANTIAGO-BIDEA

Santiago-bidea egiten hasi dira Arkupeak-eko bazkideak

TTIPI-TTAPA

Sasoiko segitzen dute Arkupeak elkartean, eta uda honetan Santiago-bidea egiten hasi dira. Abuztuaren 21ean, 28 bazkide Orreaga aldera joan ziren, eta handik Zubiri alderako bidea egin zuten. Abuztuaren 28an, berriz, Zubiritik Iruñerako zatia egin zuten. Hilabete honetan bertze bi etapa eginen dituzte. Ortzegun honetan, irailak 5, horietako bat eta hurrengo irailaren 24an. Urriaren 11n eta 23an bertze bi saio eginen dituzte eta maiatz aldera sei etapa jarraian egitea aurreikusia dute.

Ordezkarien bilera

Abuztuaren 27an ordezkarien batzordeak bi-

lera egin zuen Arkupeak-en egoitzan. Lehendakariak zortzigarren boletinean bildu diren hainbat gai azaldu zituen. Jardueren artean, erran, Bazkidearen Eguna urriaren 17an eginen dela.

Urtea bukatu aitzinetik bidaia gehiago egiteko aukera ere izanen da. Urriaren 31n Lodosara joanen dira, baina aurten, Lizarrako azokara joan ordez, San Pedro eliza, San Migeledo zubi ospetsua bisitatuko dituzte. Tenerifera azaroaren 4tik 11ra joanen dira eta itsasoa zeharkatuz, azaroaren 10etik 22ra Machu Picchura joanen dira. Honen inguruan, ortzira-lean, hilak 6, bilera eginen da Arkupeak-en egoitzan, 18:00etan.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA
Santiago-bideko etapak egiten ari dira Arkupeak-eko hainbat bazkide.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

235 bazkide Aralarren

Uztailaren 26an Aralarren izan ziren Arkupeak elkarteko 235 bazkide, San Joakin eta Santa Ana atautxi-amatxien zaindariaren eguna ospatzeko. Meza entzun, eta Gorraizen bazkaldu zuten. Uztailaren 31n, berriz, Arantzazun izan ziren 267 bazkide, Ama Birjinaren bederatziruaren harira. Gero, Azpeitiko Kirurin bazkaldu zuten.

Bestalde, ikastaro eta hitzaldien berri ere ageri da boletinean, eta Aina-ara podologoa lanean ari dela aipatzen da. Egube-

rietako loteria ere banatu zaie ordezkariari eta nahi duenak beraiekin jarri beharko du harremanetan.

Boletina osatzeko, pentsionista eta erretiratuei krisiak nola eragiten dien azaltzen duen artikulua bat bildu da.



KAGU
LIBURUDENDA

Tel. / Fax BERRIA:
948 638 232

Koskontako bidea, 7
bosgarren zeharretan
31770 LESAKA

24702 dondi berriz eragotzen!

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

ELKAR
liburudenda

• Testu liburuak
• Eskolako materiala

• Aldizkariak eta prentsa
• Fax zerbitzua eta fotokopiak

Eztegara, 18 • T. 948 630 691 • BERA



ikasturte
berria



$2+2=4$



2013
2014



AXULAR

Fotokopiak, faxa, enkuadernazioak, plastifikazioak,
aldizkariak, prentsa, tabakoa eta
testu liburuak ekartzen dira enkarguz



Santiago, 26 • ELIZONDO • T. 948 581 507



ENGLISH ACADEMY

2013/2014 kurtsorako
matrikulazio epea zabalik, plaza mugatuak

IKASTURTE HASIERA: Irailak 16

University of Cambridge azterketara
aurkezteko prestakuntza

Itzulpen lanak egiten dira • Eskola laguntza

20 URTE BAINO GEHIAGO MALERREKAN

Elizagibela, 7 behea • 31740 DONEZTEBE
T. 626 908 076 • angieacademy@gmail.com

TOKI-ONA KIROLDEGIA

2013-2014
Kirol jardueren
programa.
Apunta zaituzte!



Laster
eskuorria zuen
etxean!



Informazioa: 948 630 215
bera@urdist.com

LESAKAKO KIROLDEGIA

2013-2014
Kirol jardueren
programa.
Apunta zaituzte!



Laster
eskuorria zuen
etxean!



Informazioa: 948 637 400
lesaka@urdist.com



Dasya
Koskontako bidea, 3
LESAKA
Yoga Zentros

- Yoga
- Haurrentzako yoga
- Haurdunentzako yoga
- Jubilatuentzako yoga
- Meditazioa

- Erditze aurreko prestakuntza tailerrak
- Zoru pelbikoa indartzeko tailerra
- Sabel dantza
- Kirtan-ak

IKASTURTEAN
ZEHAR IKASTARO
DESBERDINAK
ESKAIANTZEN
JOANEN GARA



Informazio gehiagorako: ☎ 691 025 855 (Begoña)

centrodasya@gmail.com • <https://www.facebook.com/DasyaZentruaLesaka>

ttipi-ttapa

948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net

Kartelak, fakturak, kartazalak, bisita txartelak, egutegiak...

INPRIMITZEN DITUGU

SUNBILLA

HERRIKO BESTAK → SANTIBURTZIOEN ERREPASOA

Basilio Sarobe eta Agustin Arretxea omendu ditu Udalak bestetan

Giza proban neskak nagusitu dira mutilen kontra

Maider PETRIRENA

Inoiz ez da berandu bestak aipatzeko, giro ona izaten baita nagusi, eta aurtengo santiburtzioak ere ederrak izan direnez, horietaz ariko gara aldi honetan.

Bezperan, nahiz eta bestak ofizialki arratsaldean hasi, goiz-goizetik herrian izugarritzko giroa zegoen. Bigarren urtez, Arretxekobordarako igoera egin zen eta 16 lagunek parte hartu zuten. Aipatu beharra dago Juan Tomas Latasa eta Esteban Maritxalar beterranoek ere parte hartu zutela. Irabazlea Xabier Irazoki izan zen (09:57), bigarrena eta 16 urterekin Eneko Herrera (10:02) eta hirugarrena Gorka Arretxea (11:27). Gainera, joan den urteko

errekorra hobetu zuten, 10:10ean baitzegoen.

Arratsaldean bertze ekitaldi haundi bat izan genuen. Batetik, 6 mutil sunbildar (Unai eta Asier Bertiz, Luis Ibarra, Xabier Petrirena, Arkaitz Vicente, Aitor Agirre) 650 kiloko harriari tiraka aritu ziren 15 minutuz. Eta bertzetik, Ibarra 8 neska 500 kiloko harriarekin denbora berean. Proba egiten lehenak sunbildarrak izan ziren eta 41 plaza osatu zituzten. Oraingoan neskak irabazi zieten, 42 plaza eginez.

Arratsaldeko 8etan bota zen suziriarekin hasi ziren bestak. Suziria bota baino lehen, Udalak, herri guztiaren ize-nean, omenaldi ttiki bat eskaini nahi izan zien Basilio Sarobe apaizari eta Agustin Arretxea zapatarriari. Basilio bertan zegoen eta emozioz beteta hitz batzuk eskaini zituen. Agustinek ezin izan zuen bertan egon, baina plaka etxera eraman zio-



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA ETA JOSUNE AGIRRE

Kirola eta besta bateratuz, aurtengo bestetan ere ongi pasatzeko aukera ederrak izan dira.

ten. Ondotik, suziria Mario Mitxelena zinegotziak bota zuen.

Santiburtzio Eguneetik hainbat gauza daude aipagai. Meza Nagusia berezia izan zen. Basilio herriko korakal nola txistulariek beraien irakasle izateagatik detaile pare bat egin baitzizkioten. Txistulariek meza kanta bat eskaini zioten, eta bukaeran lau bertso kantatu zituzten, akordeolari eta txistulariekin. Gero, urtero bezala, herriko dantzariak emanaldi zoragarria eskaini zuten eta erraldoiek ere beraien saioa egin zuten. Arratsaldean, ohiturari jarraituz, XII Ramon Latasa Saria jokatu zen.

Haurren egunean, Jokulandiarekin, haurrek egun guztian izan zuten gozatzeko aukera. Arratsaldean, tortilla eta postre lehiaketa egin ziren.

Etxean prestatu eta epaimahaiak (Loli, Rakel eta Jexux Mari) onena aukeratu zuen. 6 postre eta 11 tortilla aurkeztu ziren eta tortilletan txapelduna Maria Jesus Iribarren izan zen eta postreetan Mirari Marizkurrena.

Gazteen Egunean, haur eta helduen herri krosetan 60tik goiti partehartzaile izan ziren. Haurren artean ez da sailkapenik egiten, denei ematen zaie domina. Helduetan, Xanti Manterola izan zen txapeldun, bigarren David Galtzagorri eta hirugarren Bixente Ibarra. Eguerdian, peñen bazkaria egin zen Ulibeltzak Elkartean, Jaiak Txaranga alaiturik. Eta gero ura eta ura herri guztian. Izugarritzko giroa sortu zen.

Ezkonduen Egunean, beste bukaera emateko hainbat ekitaldi izan ziren. Goizean Mus Txa-

pelketa jokatu zen. 22 bikotek parte hartu zuten eta txapeldunak Jose Luis eta Juan Bertiz izan ziren, bigarrenak Josu eta Joseba Apeztegia, hirugarrenak Juan Pedro Bertiz eta Pako Altzuri eta laugarrenak Fulgenzio Iriarte eta Juan Jose Mitxelena.

Arratsaldean, batetik, plater tiroketa izan zen. 19 partehartzailearen artean, Aitor Apeztegia izan zen txapelduna, bigarrena Pako Altzugarai eta hirugarrena Iñaki Mikelarena. Bertzetik, Guraso Elkartekoek prestatutako jokoak izan zituzten haurrek plazan. Buru haundiak ere atera ziren eta gozatu egin zuten.

Bestak herri afariarekin akitu ziren. Plazan egin zen eta 121 lagun elkartu ziren giro onean. Laburbilduz, hagitx besta politak izan dira.


-TELLETXEA-
 Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -


John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
 LESAKA • T. 619 418 683 • johntelletxea@hotmail.com
 www.telletxealorazaintza.com

HERRIKO FESTAK → AMABIRJINEN ERREPASOA

Festa herrikoiak eta partehartzaileak izan dira

Moto zaharrak eta bertso pilota izan dira aurten berrikuntzak

Fermin ETXEKOLONEA

Egitarauan aurreikusitakoa zuzen betez, festa onak, herrikoiak eta partehartzaileak ateraziren amabirjinak. 30 metroko arbola zutik jartzearekin hasi ziren eta urtero bezala, ekitaldi jendetsua izan zen.

Amabirjin Egunean, goizean aizkora apustu ederra ikusteko aukera izan zen, Joxeantonio Loiarte herritarra tartean zela. Arratsaldean, dantzariak saio polita eskaini zuten.

Abuztuaren 16an, haurren bost pilota partida jokatu ziren, eta ho-

rietako bat neskena. Helduak futbitoan aritu ziren, eta egin zuen eguraldi beroarekin gogotik bota zuten izerdia. Arratsaldean, berriz, tortilla lehiaketa egin zen eta hamar aurkeztu ziren. Eva Elizalde irabazi zuen eta 14 urterekin bigarren Karmele Santesteban gelditu zen. Plater tiroketa txapelketan, bestalde, Patxi Aldabe nagusitu zen.

Abuztuaren 17an, berrikuntza gisa, moto zaharrak ikusteko aukera izan zen Joxe Migel Arangurenen eskutik. Hogei moto zahar baziren, eta jendeari gustatu zitzaizkion. Haurren Eguna ere bazenez, neska-mutikoentzako jokoak izan ziren, gurasoen eskutik. Eguerdian, 65 haur eta 35 guraso bildu ziren bazkarian. Kul-



ARGAZKIAK: IZASKUN ZUBIALDE

Festa onak izan dira aurtengoak ere.

kiren ikuskizunean ere ongi pasatu zuten. Mus txapelketa ere aspaldiko jendetsuena izan zen. 22 bikote bildu ziren eta Patxi Aldabe eta Xabier Bendoiro nagusitu ziren.

Azken egunean, hau ere berrikuntza, bertso pilota izan zen. Imanol eta Mikel, Urko eta Beñaten kontra aritu ziren, Peñagarikano eta Maia bertsolariak botillero zi-

tuztela. 22-19 lehenengoek irabazi zuten. Baina emaitzaren gainetik, sortu zen giro polita da nabarmentzekoena. Herri bazkarian ere Peña eta Maia aritu ziren, eta bildutako 65 lagunek ederki pasatu zuten. Akitzeko, arbola bota eta heldu den urtera arte agurtu genituen festak.

Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkie-

gu muxiko dantzari, joaldun, musikari, guraso, kirolari eta festak aurrera ateratzeko laguntzen duten guztiei, beraiei esker baitira festak diren bezalakoak.

Hirigintza Plana

Irailaren 12an akituko da Udal Hirigintza Planaren inguruan erreklamazioak aurkezteko epea.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
Tafalla, 13 · IRUÑA · 948 230 634

MERKEALDIA - AZKEN EGUNAK
edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak

DONEZTEBE

KIROLA → ARDURADUN BERRIAK

Hamar urteren ondotik zuzendaritza berritu du Erreka Kirol Elkarteak

Batzorde
berriak eratu
dituzte lana
banatzeko

TTIPI-TTAPA

Zuzendaritza Batzordeko kide berriak izendatu dituzte Erreka Kirol Elkarteak. Hala, Joseba Legarra da orain lehendakaria, Xanti Uterga lehendakariordea, Koldo Legarra diruzaina eta Pascual Bertiz idazkaria. Baina izen berriak sartzearekin batera, lan egiteko modu berria ere paratu dute martxan: batzordeak eratu dituzte lana ahalik eta gehien banatzeko eta beraz, dena ez da batzuen gain geldituko.

Eskubaloi batzordeko arduradunak David Mingegia, Ibai Marizkurrena eta Jabierto Almandoz dira. Kros eta San Silvestre batzordean Xanti San Migel, Luismi Apezetxea, Patxiku Ganboa eta Felipe Ganboa ari dira. Eguberrietako saskiaren batzordeko arduradunak Patxiku Irigoien, Jokin Apezetxea, Nerea Telletxea eta Xabier Bañares dira. Komunikazio batzordeaz (bloga, facebook, twitter) Leire Uterga eta Pablo Elizondo arduratuko dira eta Errekaren Eguneko batzordea Juan Telletxea, Eduardo Almandoz eta Zuzendaritza Batzordeak osatu dute. Mendiko batzordekidea Alejandro San Migel da,



ARGAZKIA: ERREKA KIROL ELKARTEA

Azken hamar urteotan zuzendaritzan egon diren kideak. Ezkerretik hasita, Juan Telletxea, Pablo Elizondo, Jabierto Almandoz, Xabier Bañares eta Ibai Marizkurrena.

pilotakoa Patxi Ordoki, judokoa Oskar Mingegia, txirrindularitzakoa Xabier Bañares eta sortu berria den triatloiko batzordekidea Gorka Bidegain. Dantza Taldeak ere elkarrebarrenean segituko du.

ZUZENDARITZA OHIAREN BALANTZEA

Hamar urte pasatu dira Juan Telletxea, Xabier Bañares, Jabierto Almandoz eta Pablo Elizondo Erreka Kirol Elkarteak zuzendaritzan sartu zirenetik, hasieran Xixo Larraza eta Iñigo Juaneñaren laguntzarekin eta gerora Ibai Marizkurrenarekin. Ez dira bakarrik aritu lanean, aitortu dutenez, «luxuzko kolaboratzaileak» izan baitituzte. Kargua utziko dutela erranez, hamar urte hauen balantzea egin dute.

«Gure helburua Errekaren filosofia babestea izan da», adierazi dute: «kirola ahalik eta jende gehienarengana ailegatzeari; neska-mutikoei gure modalitateak bertze kirol edo jarduerekin batera jarri egitea horretarako inolako arazorik jarri gabe; alderdi ekonomikoarekin egoteko oztopo izan ez dadin saiaturik, eta kasu gehienetan Errekan jokatzeari gasturik eragin ez dezan lortuz». Laburbilduz, «kirola herritarren artean zabaltzea». Onartu dute «ez dela erraza izan, eta are

guttiago oraingo egoera ekonomikoarekin den ikusita, baina ahaleginarekin lortzen ari gara».

Kirol guztien gainera, eskubaloia da nagusi Erreka Elkarteak, euren hitzetan «kirol erregea» da. Honen inguruan, atzean utzitako «urte txarren» inguruan ere aritu dira, «talde gutti ziren eta etorkizuna ilun zegoen» garaia aipatuz. Baina egoera aldatu da, eta «gaur egun Donezteben eskubaloiarekin egoera higitz aberatsa da». Datuak dira lekuko, denboraldi honetan zortzi talde eta 150 jokalarik baino gehiago izanen baitira.

Momentu gogoangarriak ere izan dituzte, Ibai Meoki eta Niko Mingegiak maila gorenean egindako debutak kasu. Eta Final Fourraz ere ez dira atzundu. Horrekin batera, lehendik egiten ziren jardueri eusteaz gain, berriak ere sartu dituzte la azaldu dute: San Silvestre lasterketa edo Errekaren Eguna. Dantza Taldeak ere ez dute alde batera utzi: «are gehiago hazten baita». Udalari esker, bertze 20 urterako egoitza badutela ere gogorazi dute. Himnoa ere badutela, eta teknologia berrietan ere eskua sartu dutela gaineratu dute.

Urte hauetako «unerik gogorrena» orduko Udalarekin izandako *afaitze* izan dela erran dute: «kirol instalazioen erabile-

ra kobratu nahi zigen. Tentsio handiko uneak izan ziren, baina zorionez, proposamena baztertu eta arazoa konpondu zen. Errepikatu ezin den amesgaiztoa izan zen».

Garai horiek atzean utzita, errelebu emateko ordua dela uste dute eta urte hauetan bidelagun izan dituzten guztiei «bihotzez eskerrak» eman nahi izan dizkiete. Hala ere, aitortu dute zuzendaritza berriaren ondoan egonen direla, «behar duten guztirako». Ez baitaude «kendu baino aunitzez ere gehiago eman dien» elkartetik urrutik egoteko.

Izen-ematea Musika Eskolan

Irailaren 9tik 13ra zabalduko dute Agorreta Musika Eskolan izena emateko epe berezia, 11:00etatik 13:00etara. Ikasturte honetan ere, eskaintza zabala izanen da. Musika eta mugimendua 6 urteko umeentzat, eta 7 urtetik aitzinera, adinaren arabera, Musika Hizkuntza, instrumentua, Haur abesbatza, instrumentu taldea... 12 urtetik aitzinera eta helduentzat musika-tresna solfedorik gabe ikasteko aukera ere izanen da. Akordeoia, gitarra, gitarra elektrikoa, panderetak, perkusioa, pianoa, trikitixa eta txistua dira aukerako instrumentuak.



AURTIZKO OSTATUAREN ERRENTAMENDUA

Iturengo Udalak 2013ko abuztuaren 20an egin osoko bilkuran, erabaki zuen lehiaketa publikoa egitea, Iturengo Aurtitz auzoan dagoen *Aurtitzko Ostatuan* taberna, hostal eta jatetxe zerbitzuaren errentamendua emateko, bertzeak bertze, baldintza hauei jarraituz:

- Errentamendua iraupena: 5 urte, bertze 5 urte gehiago luzatzeko aukerarekin.
- Hileko errenta: 300,00 euro gehi BEZa. Horixe izanen da hasierako prezioa.
- 24h-ilebeteko gabealdia dago errentamenduko epearen hasieran. Adjudikazio-hartzaileak ez dio Udalari errentarik ordaindu behar epe horretan, baina negozioa abian jartzeko inbertsioak egin beharko ditu.
- Lehiaketan baloratuko dira ustiapen proiektua eta eskaintza ekonomikoa.
- Eskaintzak aurkezteko epea: 2013ko irailaren 16ko 14:00ak baino lehen, horretarako onetsitako baldintza administratiboaren pleguan adierazten den gisara.
- Behin-behineko fidantza: 500,00 euro.

Klausula administratibo partikularren plegua interesatuen eskura dago udal idazkaritzan eta www.ituren.es web-orrian.

Ituren, 2013.08.29 Alkatea, María José Bereau Baleztena

HERRIKO BESTAK → AMABIRJINEN ERREPASOA

Bestetan egin diren postre eta tortilla lehiaketak arrakastatsuak izan dira

Zikiro-jateak jende asko erakarri du aurten ere

Izaskun GOÑI TELLETXEA

Aurten ere, bestak primeran joan dira, modu batera edo bertze-
ra, denek izan baitute ongi pasatzeko aukera.

Arrakasta haundia izan du lehendabiziko aldiz egin den postre lehiaketak, baita urteroko tortilla lehiaketak ere. Tortilla lehiaketan, Marianjel Eulaterena aukeratu zuen epaimahaia, Elusketa izenarekin aurkeztua. Mortadelo y Filemon izenarekin aurkeztu zen bikoteak prestatutako tortilla bigarren gelditu zen, Eneko Rekarte eta Joseba

Telletxearena. Postre lehiaketan, berriz, Anttoni Indarena izan zen goxoa. Jendearen partehartzea ikusita, Udalak eskerrak eman nahi izan dizkie parte hartu eta lagundu zuten guztiei. Egun honetan, jende andana elkartu zen tortillak dastatzera. Ortziralarekin jokatu zen raketa txapelketako finalean, bertzalde, Iñigo Goñi eta Iker Bereau nagusitu ziren. Joseba Telletxea eta Mikel Goñi azpitxapeladun gelditu ziren.

Bestetik, urtero bezala, aurten ere, zikiro egunean jende aunitz elkartu zen. Eta denek izan zuten ongi pasatzeko aukera, bazkarian, monjen bisitan, dantzatan... Giro ederra sortu zen.



ARGAZKIA: ERREKA KIROL ELKARTEA

Goiko argazkia zikiro jatekoa da. Ikus daitekeen bezala, jendetza bildu zen frontoian eta giro ederra sortu zen. Beheko argazkiak tortilla eta postre lehiaketakoak dira. Jendearen partehartzea nabarmentzekoa izan zen eta aurkeztutako produktuak itxura ederrekoak izan ziren.

elier
escuelaimagenpersonal

- Matrikulazio epea zabalik
- Estetikako erdi eta goi mailako zikloa
- Ileapaindegiko erdi mailako zikloa
- Ileapaindegi eta estetikako oinarritzko ikastaroa

IKASTARO BERRIAK:

- **Fisioterapeutak emandako ikastaroak:**
 - Haurrentzako masaje ikastaroa
 - Oinarritzko patologia osteoartikularren ikastaroa
- **Ikastaro desberdinak:** aromaterapia, masajea, makillajea...

Facebook eta Twitterren jarraitu gaitzazu

INFORMATU ZAITEZ
943 013 627
www.elier.eu | elier@elier.eu
ADUANA 27 IRUN

BERA Zure inguruak klase guztietako insektuez (xomorro, zinoorre, ermiarma, kakuzu...) eta erretoi xagutzaz garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipien tratamenduak

GOIKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 597 • Zabalain, 42 A • BERA

ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

ITUREN

HEZKUNTZA → 2013/2014 IKASTURTEA

3 urteko 12 neska- mutikok hasiko dute aste honetan ikasturte berria

Guztira 65 ikasle eta 7 irakasle izanen dira

Arkaitz MINDEGIA

Urtetik urteragora doa ikasle kopurua Pulunpa eskolan. Joan den urtean bederatzik ikasle berri hasi baldin baziren, aurtent hamabi neska-mutiko gehituko dira: Aloña, Dunixe, Haizea, Intza, Irati, Izei, Janitz, Markel, Mattin, Mikel, Nahia eta Onintza dira.

Guztira 65 ikasle eta zazpi irakasle izanen dira ikasturte honetan eta

udako oporrak akituta, ortzegun honetan itzuliko dira eskolara.

Aurtizko ostatua

Aurtizko ostatua errentan hartzeko lehiketa publikoa deitu du Udalak. Ostatua, hostala eta jatetxearen errentamendua izanen da. Errentamenduaren iraupea bostz urtekoa izanen da, bertze bostz urtez luzatzeko aukerarekin. Hileko errentan 300 eurokoa izanen da (gehi BEZ). Behi-behineko fidantza 500 eurokoa da eta eskaintzak hilaren 18rako aurkeztu behar dira.



ARGAZKIA: PEIO MIKEO

Ehiztariak denboraldia prestatzen

Herriko basurde ehiztariak auzolanean bide zaharrak moldatzen ari dira. Argazkian Bordazarko zubia berritzen ageri dira.

Aurtizko Elkarteak

Abuztuaren 24an Aurtizko Elkarteko kideak auzolanean aritu ziren. Goiz-arratsaldean, batzuk egurlorea prestatzen eta bertzeak elkarteak kanpotik eta barrenetik pintatzen aritu ziren. Itxura polita hartu du elkarteak.

Trikitixa eta pandereta ikastaroa
Aurtent ere trikitixa eta

pandereta klaseak izanen dira urrian hasi eta maiatzera bitarte. Apuntatu nahi duenak irailaren 15a baino lehen deitu beharko du 646 298568 telefonora.

Maika Ariztegiaren 13. txapela

Sasoian dago Maika Ariztegi. Bertze urte batez, Euskal Herriko Koxkor Biltze Txapelketako

txapeladun izan zen Larraintzarren jokaturako finalean. 7 minutu eta 30 segundotan egin zuen bere lana eta 13. aldiz txapeladun izatea lortu du.

Nagore Diaz txingekin txapeladun

Herrian bizi den Nagore Diaz Euskal Herriko Txingak Txapelketako irabazlea izan zen Getxon.

BEINTZA-LABAIEN

HERRI BESTAK → ERREPASOA

Abuztuko bestak pasatuta urriruko hitzorduaren zain daude herritarrak

Lau egunez giro ona nagusitu da

TTIPI-TTAPA

Dagoeneko hilabete bada herriko bestak akitu zirela, baina giro ona tartean denean ez da sekula kalte aipatzea. Ostiralarekin botatako altxaferoarekin hasi zi-

ren bestak eta lau egunez hainbat ekitaldi izan ziren: puzgarriak, herri kirolak, mus, tortilla, postre eta plater tiroketa txapelketak, otorduak, musika... Eta orain, urrirura begira daude herritarrak. Aretze jatearen aitzakiarekin berriz besta ederra egiteko aukera izanen baita.



ARGAZKIAK: ARANTXA ITURRALDE

Adin guztietako jendeak izan du bestetan ongi pasatzeko aukera.

NARBARTE

HERRI BESTAK → ERREPASOA

Bestak ederrak aurten ere

Ibargarai zena, Elizagoien eta Arruti omendu dituzte bestetan

Martin BERTIZ

Ailegatu eta joan egin dira urtero bezala bestak, baina tartean giro ona eta besta egiteko egun bartzuk utzi dizkigu. Gustura gelditu da jendea.

Aipatzekoa, ostatuan emandako zopak, oso goxoak baitzeuden; edo haur jokoak eta bonba japoniarrak, gaztetxoengustuak ase zituztenak; edo mus eta partxis txapelketa, bestetako egi-

tarauan bere lekua hartua dutenak; ez gara ahaztuko Zopilotesen kontzertuan bildu zen jende kopuru majoaz; edo zikiroan sortu zen giro paregabeaz; eta nola ahaztu herri kirolak eta bertan egin ziren bi omenaldiez. Bat aurten joan zaigun Pello Ibargarairi egindakoa, hainbeste urtez herri kirolean parte hartua eta bestea, Bittor Elizagoien eta Esteban Arrutiri eman zitzaizkion artisau lanak, hainbeste urtetan erakutsi duten borondateagatik. Bi lanak Mañolo Ibarra eta Antonio Perezek, herri-tarrak biak, eginak ziren.



ARGAZKIAK: MARTIN BERTIZ

Jendea gustura gelditu da aurtengo bestekin ere.

Honenbestez, hurrengo urteko besten es-
peroan geldituko gara, ederrak izatea lortzen dugun.
ea aurtengoak bezain

ELGORRIAGA

HERRI BESTAK → ERREPASOA

Guttiago gelditzen da 2014ko santioetarako

Hilario Sukilbidek bota du aurtengo txupinazoa

Mattin LARRALDE

Orain dela hilabete pasa bestetan geunden, eta geroztik alerik ez denez atera, aurtengo bestak nola joan diren kontatuko dugu aldi honetan. Bezperan, haur kroa eta ipuin kontalararen saioaren ondotik, beste hasiera eman ziren suziria piztu zuen Hilario Sukilbidek, alde batetik, urte aunitzez herriaren duen jantoki fama-

tuagatik eta bertetik, bere ezkontzarekin ia herri guztiak besta egun potolo bat izandu zuelakoz.

Santio egunean, goizez dantzak izandu ziren eta arratsaldean patata tortilla lehiaketa egin eta ondotik jendeak dastatzeko aukera izan zuen.

Ortizalarekin, haurren eguna izandu zen. Goizez puzgarrietan gozatu zuten neska-mutikoek eta bazkal ondotik, magoaren saioa eta serway izandu ziren. Helduak musean aritu ziren. Eskalatzeko rokodromoa goian zegoenez, berendua plazan egin zen.

Larunbateko zikiro egunarekin akitu ziren bestak. Lehenik tokan jokatu zuten herritarrek eta gero bazkaldu. Ondotik, jo eta su dantzan aritu ziren eta horrela agurtu zituzten bestak.



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Hilario Sukilbide txupinazoa botatzeko prest.



Iñigoren ezkontza

Bestelako berri bat ere badugu herrian. Iñigo Etxeberria txirrindulari ohia eta eskubaloi jokalaria dotorea ezkontzekoa baita. Ale hau argitaratu orduko ezkontdua izanen da, abuztuaren 31n egitekoa baitzen. Lerro hauen bidez, zorionak eta besarkada bat berari eta bere emazte Rociori.

EZKURRA

HERRIKO FESTAK → AMABIRJINETAKO ERREPASOA

Lau egunez giro ederra izan da herriko festetan

Azken eguneko herri bazkarian 78 lagun elkartu dira

Fernando ETXEBERRIA

Beste urte batez, lau egunez herriko festak ospatu ditugu abuztuan. Hilaren 14ko gauean egindako afaria eta ondoko dantzaldia izan ziren festei hasiera eman zieten ekitaldiak.

Egun handian, Meza Nagusiaren ondok, Re-kondo eta Olasagastik aizkora saioa eskaini zuten eta bigarrena nagusi zen. Arratsaldean pilota partidak jokatu zituzten eta goizaldeko 3ak arte musika izan zen. Egunik indartsuena, hala ere, larunbatekoa izan zen. Alde batetik, mus txapelketa jokatu zen eta Xabi eta Ramon izan ziren txapelidunak. Jose Luis eta Oskar bigarren gelditu

ziren, Bautista eta Migel hirugarren eta Leire eta Arantxa ahizpak laugarren.

Arratsaldean, Euskal Herriko aizkolari gazteen txapelketa jokatu zen. Hasiera batean, bost aizkolari aritze-koak ziren, baina azkenean Zigako Joxean Etxeberriak ezin izan zuten parte hartu gaixorik zegoelako. 45 ontzako lau enbor eta bi kanaerdiko moztu behar izan zituzten eta Iker Vicente otsagabierra nagusi zuen, Bizkaiko Julen Larrea bigarren gelditu zen, Arostegiko Oier Kañamare hirugarren eta Aitor Jauregi laugarren. Herri Kiroletako lehendakaria eta Ezkurrako alkatea arduratu ziren garaikurrak eta txapela emateaz.

Bestalde, probaren aurretik, Julen eta Manolo Kañamaresek erakustaldi ederra eskaini zuten. Zerrarekin hiru



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Festetako argazkiak dira. Goian herri kiroletan aritu ziren gazteak ageri dira, bigarren argazkian muslariak eta behekoa frontoian egindako herri bazkariakoa da.

ohol moztu zituzten eta bukaeran motozerrekin banku bat lauburu batekin, onddo bat, lauburu baten irudia eta Euskal Herriko mapa egin zituzten.

Azken egunean, 78 lagun elkartu ziren Jo-seanek alaitutako herri bazkarian. Gaueko 10ak arte luzatu zen festa eta horrela bukatu ziren lau eguneko bestak.

Beste behin aipatze-koa da festetan izan diren hainbat ekitaldi aurrera ateratzeko esku-zabalasunez batzuek egin duten lana. Hori da, adi-

bidez, Cipriano eta bere laguntzaileen kasua. Mendira egurra ateratzera joan ziren, eta ondok ekari eta herri kiroletarako prestatu zituzten, baita hondarrak bildu ere. Pello eta bere kolaboratzaileak herri kirolak antolatzeaz arduratu ziren eta Jose Luis eta koadrilak herri bazkaria prestatu eta banatu zuten, baita mahaiak eta aukiak bildu ere. Jaionek zuzendutako beste talde bat hurren festa eta jokoez arduratu zen. Guztiatik eskerrik asko.

MUTTIOREN HERIOTZA

Festetako egun handian, abuztuaren 15ean, Jaime Rodriguez *Muttio* hil zen 84 urte zituela. Pertsona ona zen eta horrexegatik oso estimatua zen herrian. Biharamunean egin ziren bere aldeko hileta-elizkizunak, eta herri kirolak ordu berean hastekoak baziren ere, azkenean ordubete atzeratu ziren. Horrekin batera, herri kirolak hasi aurretik minutu bateko isilunea ere egin zen *Muttio* gogoran. Lerro hauen bidez, doluminak familiari.

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab.



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

F. LANCHAS

Akutbladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzalea
Jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

ZUBIONDO
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

Tel: 948 645 474

HERRIKO BESTAK → IRAILAREN 6TIK 8RA

Larunbatean gazteen laxoa txapelketako partida jokatuko du etxeko taldeak Arraiozen kontra

Egunero haurrendako puzgarriak izanen dira

TTIPI-TTAPA

Asteburu honetan Oizek ere hartuko du besten lekukoa eta os-tiraletik igandera adin guztietako jendearendako ekitaldiak prestatu dituzte. Udaletik bi ohar jakinarazi dituzte: alde batetik, bestetan egunero izanen direla haurrendako puzgarriak, eta bertzetik, bestetan gerta litezkeen arazoez herria ez dela arduratuko.

ORTZIRALA, IRAILAK 6

- 18:00etan haurrendako jokoak plazan.
- Ondotik, haurrendako eta helduendako txokolatea.

- 20:00etan bestei hasiera emateko altxaferoak. Herriko trikitilariak herrian barna ibiliko dira.
- 21:00etatik aitzinera Zopak Herriko Ostatuan.
- Gaez dantzaldia JOXEANJEL akordeoilariarekin.

LARUNBATA, IRAILAK 7

- 10:30ean gazteen laxoa txapelketako partida, Oiz eta Arraiozko taldeen artean.
- 14:00etan herri bazkaria, Sustrai Colina eta Julio Soto bertsolariekin eta JOXEANJEL akordeoilariarekin.
- Arratsaldean eta gaez dantzaldia AIERRIK taldearekin.

IGANDEA, IRAILAK 8

- 11:00etan Meza Nagusia.



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Haurrek lehenbiziko egunean jokoak izanen dituzte eta horrez gain, egunero puzgarrietan ibiltzeko aukera izanen dute. Aizkora apustua igande eguerdian jokatuko da herri bazkaria larunbatarekin eginen da.

- Ondotik luntxa Herriko Ostatuan.
- 13:00etan aizkora apustua: Juan Jose Lopez eta Joseba Otaegi ariko dira.
- 17:00etan mus txapelketa elkartean.
- 17:30etik aitzinera Sunbillako dantzarien saioa.
- 19:30ean herritarren arteko X. Patata Tortilla lehiaketa. Ondotik, tortilla, xingarra, txistorra eta gazta das-

tatzeko aukera izanen da.

- Arratsaldean eta gaez dantzaldia BIXENTE akordeoilariarekin.
- Beste bukaera emateko, kalejira herrian barna eta GAIXOA NI.

ONGI PASA BESTAK!!!

EZPELURA ITURGINTZA S.L

Kalefakzioa • Gasu
Elektrizitatea • Eguzki plakak
Zoru bero emailea

Tfnoa.: 606 337 427 • OITZ (Nafarroa)

OIZKO UDELEK - NEZAROK

Oizko Udaiak besta zoriontsuak opa dizkie herritar eta bisitari guzti

ORBELA

BEINTZAKO OSTATUA

Idoa - Mikel
Tel: 948 450 014
BEINTZA LABAEN
orbela@beintza.com
www.orbela-beintza.com

ttipi-ttapa Kartelak, fakturak, kartazalak, bisita txartelak, egutegiak...

948 63 54 58
kulturkari@ttipi.net

inprimitzen ditugu

ERATSUN

HERRIKO FESTAK → IRAILAREN 5ETIK 8RA

Festetako azken egunean pilota partidak eta aizkora apustua izanen dira

Tortilla lehiaketa eta sagardo dastaketa ere hondar egunean

TTIPI-TTAPA

Eratsunen ostegun honetan hasiko dituzte Lokariko Amabirjinaren omenez ospatzen dituzten festak. Igandera omenez ospatzen dituzten festak. Igandera arte musika, kirola, otordu eta bestelako ekitaldiez gozatzeko aukera izanen dute.

OSTEGUNA, IRAILAK 5

- 20:00etan festei hasiera emateko suziriak.
- 21:00etan Baztan Zopak.

OSTIRALA, IRAILAK 6

- 10:00etatik aurrera txistulariak herrian barna.
- 11:30ean etxez etxe akordeoilariarekin.

- 18:00etan pilota partidak: alde batetik, lau t'erdian Ioldi eta Chaffe, eta bestetik, Ezkurdia-Linzoain, M. Goñi-Eskuderoren aurka.
- Arratsaldez eta gauzez dantzaldia MODESTO akordeoilariarekin.

LARUNBATA, IRAILAK 7

- 10:00etatik aurrera txistulariek herria alaituko dute.
- 11:00etan Mus Txapelketa. Sariak: bikote txapeldunak bildots bana eramanen du, bigarrenak bina txuleta eta bina botil ardo eta hirugarrenak bina txuleta.
- 14:00etan herri bazkaria Banakako abeslariarik alaitua.
- 18:00etan Doneztebeko Erreka Dantza Taldearen saioa.
- Arratsaldez eta gauzez dantzaldia MODESTO akordeoilariarekin.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Pilota partidak, aizkora apustua eta mus txapelketa Eratsungo festetan hutsik egiten ez duten ekitaldiak dira.

akordeoilariarekin.

IGANDEA, IRAILAK 8

- 10:00etatik aurrera txistulariak herrian barna.
- Goiz eta arratsaldez umeen parkea puzgarriekin.
- 11:00etan Meza Na-

gusia Lokariko Amabirjinaren omenez.

- 12:30ean aizkora apustua: Erason-Saralegi, Rekodo eta Titoren aurka.
- Bidenabarrean, patata tortilla lehiaketa. Irabazlearentzat bi afari.
- Ondoren, sagardo

dastaketa.

- 18:00etan pilota partidak: alde batetik, lau t'erdian Zamora eta O. Elizalde eta bestetik, U. Elizalde-Etxamendi, Olano-Lamaren kontra.
- Ondoren, dantzaldia MODESTOrekin.

Eratsungo Udalak
besta zoriontsuak opa dizkizue

Kulturkari
Logotipoen diseinua
Tarjeten diseinua
Triptikoa, folioak, karpelak,
guburuzak, fakturak...
Kartelak, egutegiak
Irudi korporatiboa
Eskatze aurrekontua konpromisoak gabe!
Tel. 948 439458 kulturkari@ttipi.net

emakumeen eguna

85€

50 kartel A3 (30,3cm x 42,4cm)
Koloretan
135g
Diseinua • inprenta • garraioa
BEZa barne
Epea: 10 lan egun

ttipi-ttapa
Pozorenako bidea, T. 1 | 01700 LESAKA
948 439 458 | www.ttipi.net | info@ttipi.net

GIZARTEA → BARATZEGINTZA EKOLOGIKOA

Baratze ekologikoen inguruko ikastaroa antolatu du Udalak


Ostiral honetan bukatuko da izena emateko epea

TTIPI-TTAPA

Baratzea modu ekologikoan nola landu ikasteko tailerra antolatu du Udalak. Oraingoz, izena emateko epea zabaldu du eta interesatuek ostiral hau izanen dute apuntatzeko azken eguna. Ikastaroa aurrera ateratzeko 20 laguneko gutxieneko taldea osatu beharko da eta behin osatuta, hainbat asteburutan egingen litzateke tailerra, Arrea Elkartearen eskutik.

Iraileko hirugarren asteburuan hasia aurreikusitako asteburuan eta urriko lehenengoan segituko lukete. Otsail bukaeran eta martxo hasieran beste hiru saio egingen lirateke eta uztailean azken hiru saioak. Gisa honetara, baratzean lanean hasita sortzen ahal diren zalantzak eta kezak argitzeko aukera izanen litzateke.

20 lagunek izena ematen badute bakoitzak 74 euro ordaindu beharko ditu. Hortik aurrera, zenbat eta lagun gehiago apuntatu orduan eta merkeagoa izanen da kostua.



ARGAZKIA: FERNANDO GOIA

Tipula ikaragarriak

Bai, bai, tipulak dira Kontxi Billabonak eskuetan dituenak. Haundiak direla esatea, gutxitxo da, 1.545 kilo eta 1.355 kilokoak baitira.

ttipi-ttapa
 eberra bidaltzea nahi baduzu,
 deitu telefono honetara:
(0034) 948 63 54 58
 www.ttipi.net




ARGAZKIAK: ANGEL SALABERRIA

Huts egin ezin den hitzordua Artikutzan

San Agustin Eguna udako herriko festetako azken eguna dela esaten du batak baino gehiagok. Argi dagoena da ongi pasatzeko toki paregabea bilakatzeko delako urtero Artikutza. Aurten ere herritar asko bildu zen abuztuaren 28an eta giro ederra sortu zen.



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Festa ederrak

Abuztuaren 11ko Umeen Eguneko ekitaldiek festa usaina zabaldu zuten herrian. Laster ailegatu ziren Amabirjinak. Bezperan gazteek hartu zuten lekukoa, eta horren ondoren bost egunez festa giroa nagusitu zen. Peñaren Egunak borobildu zuen guztia. Argazki hauek festetako umore eta giro onaren erakusle dira.

LEITZA

GIZARTEA → ERDI AROKO ERAIKINA

Hasi dira Ibero ingurua berreskuratzeko lanak

Dorrea garbitu ondoren indusketak eginen dira

JM BARRIOLA

Iberoko dorrean lanean hasi dira Larrate enpresa, Iñaki Sagredo eta bere lantaldea. Cerderna Garalurren laguntza du proiektuak. Iberoko dorrea garbitu eta prestatzea da asmoa eta ondoren, indusketa arkeologikoak egitekoa. Honetaz gain, inguruak ere berreskuratzeko dira hainbat fasetan. Ola-zaharrak, karobiak, bordak, base-riak eta zubiak osatzen dute Iberoko eraikin multzoa.

Orain garbitze lanak eginen dira, dorrea ba-

rrutik hustu, egur zahar- rrek eta eroritako harriak erretiratu eta segurtasun aldetik ongi jarri. Behin hori eginda, irailaren erdialdera, indusketa arkeologikoak eginen dituzte. Ola zahar- rean pilatuta dauden lohiak ere aterako dira eta indusketak eginen dituzte bertan. Lanak herriko jendeari irekiak izanen dira, auzolanak antolatuz horretarako. Parte hartu nahi duenak izena eman dezake udal- letxean.

Erdi Aroko eraikin hauen berreskurapene- kin batera, bertako bi- zimodua nolakoa zen ikasteko aukera bikai- na izanen da. Aurrera- go, eskoletako umeei inguru hori zer den era- kusteko asmoak ere di- tuzte.

Mendi bizikleta martxa eta maratoi erdia Plazaolatik

Europako Natur Bi- deen Eguna dela eta, irai- laren 15ean, zazpigarren aldiz maratoi erdia anto- latu dute Plazaola Par- tzuergotik. Lasterketa Leitzako Urto ingurutik 09:30ean abiatuko da, eta Lekunberriraino joa- nen da 21 kilometroko ibilbidea osatuz.

BTT martxa egiteko, berriz, hainbat aukera izanen dira: Andoain eta Lekunberri arteko 40 ki- lometroak egiteko 10:00- etan abiatuko dira, Lei- tza eta Lekunberri arte-



ARGAZKIA: JM BARRIOLA

Iberoko dorrean lanean ari dira makinak.

ko 15 kilometroak egi- teko 11:30ean eta Le- kunberri-Mugiroko 4 ki- lometro egiteko 12:30- ean. Parte hartu nahi

duenak Plazaola Turis- mo Partzuergoan edo www.plazaolakiroak.org- en izena eman dezake irailaren 11 baino lehen.

Talo Eguna urrira atzeratua



Talo Eguna urriaren 6an eginen da. Azken urtee- tan, iraileko lehen asteetan ospatu izan da, baina aurtengoan urrira atzeratu da. Zailtasunak izaten ziren antolaketan, abuztuan jendea erdioporreran egoten zelako. Asmoa, urteroko moduan, taloak dastatzeko aukeraz gain, artisau azoka izatea, tres- na zaharren erakusketa egitea eta umeentzat gur- dian ibiltzeko aukera eskaintzea dira eta nahi du- ten herriko nekazariek beraien produktuak erakutsi eta saldu ahalko dituzte plazan. Kirol saioa ere iza- nen da. Laster jakinaraziko dugu egitarau osoa.



ARGAZKIAK: E.IRAOLA

Ederrak izan dira aurtengo Santiburtzioak

Dantza, kirola, musika... denetarako aukera izan zen abuztuaren 10etik 15era bitartean. Aurten gainera, lehengo urtean baino jende gehiago ibili da, herrita- rrek eta baita kanpotik etorriak ere, Udalak ere pesten balorazio ona egin du.

PESTAK → AMABIRJINEI ERREPASOA

Goizetik gauera arte giro bikaina nagusitu da herriko pestetan

Herritarren partehartze zabala izan da arrakastaren sekretua

Juana Mari SAIZAR

Abuztuaren erdialdean ospatu genituen herriko pestak eta dagoneko aste batzuk pasatu diren arren, gustora jarriko gara atzera begira. Batzuen dantzarako trebezia gozatu, herrikiroletan gazteen arteko lehia sana ikusi eta festa giroan gozatzuz lotsa etxean utzita ibili ginen. Aurtengo pesten balorzio oso ona egin dute antolatzaileek eta beraien

ustez, herritarren partehartze zabala izan da arrakasta horren sekretua. Ez da falta izan pestarako gogoa eta lanerako borondatea. Hala, herriko haur, gazte zein helduak aritu dira kirolelan, antzerkian, dantzan... Ahal zen neurrian gastuak murrizteko asmoz hartu zuen erabakia pesta batzordeak eta lortutako erantzuna ikusita, bide horretatik lanean segi behar dela argi geratu da. Orain hurrengo urtekoei begira jartzeko garaia da!

Alustiza berriz ere txapeldun

Urteroko hitzorduari ez zion hutsik egin An-



ARGAZKIAK: IZARNE OLANO ETA ENERITZ IRAOLA

Pestetako argazkietan agerikoa denez, ez zen aspertzeko tarterrik izan, ederki pasa genuen!

tonio Alustiza herritarrak eta oraingoan ere izugarriko lan polita egin zuen Uharte Arakilen, abuztuaren 25ean jokatu zen Artzain Txakurren Lehiaketan. *Bat* eta *Jai* txakurrak izan zituen berrekin eta maila ederra erakutsi zuten, lehenengo eta bigarren postuak

lortuz, hurrenez hurren. Antonio eta *Batek* 256 punturekin lortu zuten garaipena. Garaikurra, txapela 200 euro eta artzantzako maletina eman zizkieten opari. *Jairekin* bigarren egin eta garaikurra eta 145 euro eskuratu zituen. Ez da nolanhiko marka, hamar-

garren aldiz segidan lortu baitu garaipena. Zorionak hirurei.

Bestalde, irailaren 1ean ospatzekoak ziren Aresoko VI. Mendi Martxa eta San Migeleko erromeria. Bi ekitaldi hauen inguruko xehetasunak datorren alean emango dizkizuegu.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERA (SAN JOSE) | LESAKA | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | BETELU
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

BAZTAN

GIZARTEA → SALAKETA

160 bat lagunek Baztan eta Elizondoko alkateek jasotako heriotz mehatxuak salatu dituzte

Uda honetan hainbat heriotz mehatxu jaso dituzte

TTIPI-TTAPA

Faxismoari stop, mehatxurik ez lelopean 160 lagun inguru bildu ziren abuztuaren 29an Elizondoko plazan, uda honetan Baztango alkate Garbiñe Elizegik eta Elizondoko alkate Mikel Sobrinok jaso dituzten heriotz mehatxuak salatzeko.

Agrupacion de Nacionalistas Navarros delako taldeak sinatutako idatzien bitartez jaso dituzte heriotz mehatxuak Elizegik eta Sobrinok, herriko bestetan eta Baztandarren Biltza-

rrean euskal preso politikoen eskubideen aldeko ekimenak baimendu edo babesteagatik, baita ikurrina bezalako Euskal Herriko sinboloak defendatzeagatik ere eta Espainiako bandera ez jartzeagatik.

Agrupacion de Nacionalistas Navarros delako taldearen arabera, Baztango eta Elizondoko alkateek ez dute Herriko Etxean Banderen Legea bete eta herrietako bestak erreibindikazio politikoak egiteko aprobetxatzen dituzte, eta ikurrina eta Euskal presoak Euskal Herriratzeko banderinak jartzen ditu adibidetzat. Arrazoi horiengatik, ANN taldeak «uztailaren 15ean egindako bileran, ahobatez heriotzera zi-



ARGAZKIA: JOSUNE ITURZAETA

Dozenaka lagun elkartu ziren Elizondoko plazan abuztuaren 29an, faxismoaren kontra eta mehatxuak salatzeko.

gortu dituela» zioen lehen mehatxu-eskutzak. Zigor hori ez betetzeko baldintzat Baileko udaletxean Espainiako bandera jartzea eta ikurrina kentzea eskatzen zuten. Hurrengo mezuetan ere «mehatxuak berretsi» zituzten. Abuztuaren 13ko datarekin eskutitz baten bidez eta posta elektronikoko bidez, bi idatzi hartu zituzten udaletxean, aitzineko gutuneko sinadura berarekin: Agrupacion de Nacionalistas Navarros. «Ikurrina kendu eta Espainiako bandera jartzeko» exijitu zieten eta are gehiago, gutunean inposatutako baldintza ez betetzeagatik abuztuaren 26tik aitzinera heriotz mehatxuak aitzinera eramanen zituztela ere idatzi zuten.

ERANTZUNAK

Mehatxuen berri eman zutenean, Bakartxo Ruiz eta Xabi Lasa EH Bildu eta Aralar-Na-Baiko Nafarroako parlamentariak Garbiñe Elizegiren ondoan izan ziren prentsaurrekoan. Ruizek adierazi zuenez, «azken hilabeteotan EH Bilduren eta bere hautetsion aurkako mehatxuak biderkatu bertzerik ez dira egin. Ministroen mehatxuak, epaileen mehatxuak, eta kasu honetan, reketeen mehatxuak. Illegalizazio mehatxuek ari gara, baita heriotz mehatxuek ere. Zergatik eta euskal preso politikoen eskubideen aldeko ekimenak baimendu edo babesteagatik, baita ikurrina bezalako Euskal Herriko sinboloak defendatzeagatik ere». Mehatxuhauk guztiak «ez dira

Bildu eta EH Bilduren hautetsien kontrakoak bakarrik, baizik eta EH Bilduk defendatzen duen ezkerreko proiektu soberanista bozkatu eta babesten duten hiritar guztien kontrakoak».

Joan den astean egindako agerraldian, berriz, Begoña Sanzberro UPNko zinegotziak Bilduren jarrera kritikatu zuen, mehatxu horien inguruan «estrategia» darabilte leporatuz. Gaineratu zuen, mehatxuen berri izandakoan beraien elkartasuna adierazi ziela. Bildurendako «mehatxu batzuk onak eta bertzeak txarrak» direla kritikatu zuen Sanzberrok eta «alderdikeria» egotzi zien: «Bertze zinegotziok mehatxuak jaso ditugunean ez dute hainbertzeko zalaparta egin».



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Batzar Nagusietako kideen babesa jaso dute Baztango eta Elizondoko alkateek.

Batzar Nagusiko kideen babesa jaso dute Elizegik eta Sobrinok

TTIPI-TTAPA

Mehatxu hauek onartezinak egiten zaizkie Batzar Nagusiko kideei, «ez baitira alkate hauen aurkako mehatxuak bakarrik, baizik eta beraiek ordezkatzeko dituzten herrien aurkakoak, beraz, baztandar guztien aurkako erasoak dira». Ikurrina Euskal Herriko ikurretako bat da, «Baztandarren Biltzarra egunean eta herriko bestetan urteetan erabili izan dena eta baztandar gehiengoak herriko ikur bezala hartzen duena». Nafarroako Gobernuak ere ikurrina jartzea debekatu nahi izan du eta Udala auzitegiara eraman du ikurrina jartzeagatik eta aldi berean «arrotza eta iraingarria egiten zaigun Espainiako bandera jarrazi nahi digute».



**ttipi txartelarekin
beti irabazten da !**

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA MUSUTRUK
-%25eko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

eskatu zurea 948 63 54 58
informazio gehiago: telefonoa
TTIPI-TTAPA
Kokontako bidea 7, 31770 LESAKA
Tel. 948 635 458 / Fax. 948 635 457
info@ttipi.net / www.ttipi.net

deSKONTUak

SANSIÑENA TAILERRA
ELIZONDO | %5 olio aldaketetan

Ostargi optika
BERA
%5eko deskontua
produktu guztietan

nafarpres
LIBURUETAN
ELIZONDO
%10 liburu eta ikas materialetan,
testu liburuek eta bideoak izan ezik

ELBETEbo POSADA
ELBETE
%10, kartan, 30€tik gorako gastuan

bixkiak
KIROI ETA MODAKO
erropa denda
LESAKA | %10eko deskontua

bortairudi
BERA
Kopietan, enkuadernazioetan eta
inprentako zenbait lanetan,
5€tik gorako gastuan
%5eko deskontua

zozketak

- 595 ALEKO IRABAZLEAK
- 1- KAMISETA BAT | Onin Art
Jesus M^a Matxakote | IGANTZI
 - 2- MARTIKO LOTEA
M^a Joxe Apeztegia | ITUREN
 - 3- 2 SARRERA | Zugarramurdiko Sorginen lezeak
Aintzane Apeztegia | AURTITZ
 - 4- 2 LIBURU | Alberdania, Erein, Igela argitaletxeak
Amatorien uza | Emili Ingoinen | AMAIUR
Tom Sawyer-en abenturak | Xabier Susperregi | LESAKA
 - 5- 2 SARRERA | Berako Iganlekua
Blanca Esther Sein | IGANTZI
 - 6- 2 SARRERA | Aquarium
Isabel Espeloin | SUNBILLA

KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com

ARKUPE LOTEA
www.arkupegozotegia.com

2 SARRERA
Zugarramurdiko sorginen lezeak
www.turismozugarramurdi.com

2 LIBURU
Tarttalo argitaletxea
www.tarttalo.com

2 SARRERA
Lesakako Udal kiroldegia
www.urdial.com

2 SARRERA
Aquarium
www.aquariumss.com

BAZTAN

BESTAK → ELIZONDO

Ortziral ilunabarreko txupinazoarekin hasi eta igandean akituko dira Txokotoko bestak

Larunbatean Emakumeen III. Frontenis Txapelketako finala jokatuko da

TTIPI-TTAPA

Ohiturari segituz, Elizondoko Txokoto auzoan bestak ospatuko dituzte asteburu honetan. Ortziraletik igandera bitarte hainbat ekitaldi prestatu dituzte.

ORTZILERA, IRAILAK 6

- 19:00etan txupinazoak. Ondotik txistulariak, erraldoiak eta buru-haundiak.
- 20:00etan Baztan Zopa dastaketa eta dantza herrikoiak.
- 21:00etan paella lehiaketa.
- 22:30ean kontzertuak: 200LAGOS eta RATAS MUERTAS taldeekin.

LAUNBETA, IRAILAK 7

- 11:00etan argisoinuak txistulari, erraldoi eta buru-haundiekin. Bonba japoniarrak Maurizio eta Felix Plazan.
- 12:00etan Txokotoko Emakumezkoen III. Frontenis Txapelketako finala Elizondoko frontoian.
- 14:30ean zikiro-jatea.
- 00:00etan dantzaldia TRIKIDANTZekin.
- Ondotik DJ JO T A T X O.

IGENDIA, IRAILAK 8

- Goizez eta arratsaldez haurrendako puzgarriak.
- 18:00etan haurrendako euskaraokea.
- 21:00etan suzko zezena.

Behi-azienden lehiaketa-enkantea

Irailaren 20tik 22ra eginen da piriniar arrazako behi-aziendaren lehiaketa eta enkantea.



ÚTZITAKO ARGAZKIA

Behikakako sariak eman ditu aurten ere Xorroxin Irratiak

Uztailaren 27an egin zen bosgarren urtez Behikakak.com ekitaldia, Xorroxin Irratiaren alde. Momentuan saridunik agertu ez bazen, dagoeneko agertu eta sariak eman ere egin dituzte. Argazkian ageri denez, Azpilkuetako Esteban Mendiburuk (Maite Iriartek hartu zuen saria bere orde), Lekarozko Miguel Javier Meo-kik eta Anizko Jauregiako Aitor Azkaratek hartu dituzte sari ederrak.

GIZARTEA

Lekarozko gazteen aterpea ASPACEK kudeatuko du datozen bortz urtetan ere

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuak berriz ere ASPACEK eman dio Lekarozko gazte aterpea kudeatzeko ardura datozen bortz urterako. Kudeaketa hogei urtera ere luzatzeko aukera du, urtebeteko luzapenen bitartez. ASPACEK hamar urte daramazki Lekarozko aterpea kudeatzen eta inguruko 20 laguni lana ematen die, horietatik 17 ezintasunen bat dutenak. Lekarozko aterpearen instalazioak urte osoan irekiak egoten dira eta

130 lagunendako tokia eskaintzen dute. Lotarako tokia ez ezik, jantokia, kafetegia eta bilerak, solasaldiak edo jarduerak egiteko aretoak ditu. Aurten, ludoteka ere ireki dute, 3-11 urte arteko neska-mutikoei zuzendua. Eskaintza honekin, Baztanen eskola adinean dauden neska-mutikoei bere etxeko lanak egiteko, tailer eta jokoetan jolasteko edo urtebetetzeko bestak egiteko aukera ere izanen dute. Aterpean ostatu hartu eta umeak dituzten familia eta taldeek ere erabiltzen ahal dute ludoteka.

Xehetasunak hurrengo alean emanen ditugu.



ARGAZKIA: PELLO SAN MILLAN

Gorramendiko erakusketaren azken egunak

Thierry Albide artista elizondarrak Gorramundi izeneko instalazioa inauguratu du uda honetan Gorramendiko zaintzako etxolan eta larunbat hau, irailak 7, izanen da erakusketaren hondarrek eguna. Artearen bidez, Gorramendiren 'mundua' eta esentzia erakutsi nahi ditu: base amerikarra, artzaintza, putreak... etxola eta ingurua arte-gune bihurtuz.

www.elzapatodeinmazapatak.es
inma@elzapatodeinmazapatak.es

EL ZAPATO DE inma ZAPATAK

IREKI BERRIA

Gizon, emakume, gazte eta haurrendako zapatak
Kirol eta mendiko zapatak

Osagarriak: boltsoak, gerrikoak eta guardasolak
Konponketak egiten ditugu

T 948 45 25 87 **LARUNBAT ATSALEDETAN IREKITA** Santiago, 38 behea
3700 Elizondo, Nafarroa

HERRIKO BESTAK → IRAILAREN 13TIK 16RA

Ezkondu eta ezkongabeen futbol partida Elbeteko bestetako lehen egunean

Ortziral
arratsaldeko
txupinazoarekin
hasiko da

TTIPI-TTAPA

Gurutze Sainduaren omenez egiten dituzten bestak, aurten lau egunez ospatuko dituzte Elbeten, irailaren 13tik 16ra.

ORTZILERA, IRAILAK 13

- 18:00etan txupinazoa eta bonbajaponiarrak.
- Ondotik txistulariek buruhaundiekin herrian barna buelta emanen dute.
- 19:30ean futbol partida, ezkonduak ezkongabeen kontra.
- 21:00etan Baztan Zopak.
- 22:30ean FRANTXISKO Elbeteko Posadan.
- 00:00etan txopo goratzea.
- Ondotik DJ-ak frontoian: HUNNAI eta PIEK.

LAUNBETA, IRAILAK 14

- 09:00etan Dianak.

- 11:00etan Meza Nagusia.
- 12:00etan luntxa.
- Ondotik, Elbeteko dantzarien saioa.
- 14:30ean zikiro-jatea, Julen Zelaieta, Iñaki Aleman eta Jaione Elizagoienek alaitua.
- 20:00etan dantzaldia AIERRIK taldearekin.
- 21:00etan Mutildantzak: Baztango dantza taldearen saioa.
- 22:00etan Mutildantzak.
- 00:00etan dantzaldia AIERRIK taldearekin.
- Ondotik TIRRI&TERRI DJa plazan.

IGENDIA, IRAILAK 15

- 09:00etan dianak.
- 11:00etatik 13:30era eta 15:30etik 18:00-etara puzgarriak, tren txu-txua eta car-ak.
- 14:00etan haurren bazkaria posadan.
- 17:00etan mus eta partxis txapelketa.
- 18:00etan haurren dantzaldia.
- 18:30ean txokolatada.
- 20:00etan dantzaldia JAIONE ELIZAGOIENen eskutik.



ARGAZKIAK: RAKEL GOÑI

Aurten ere ez kirola eta dantza egiteko aukerarik faltako bestetan.

- 22:00etan zozketa eta sari banaketa.

ASTELEHENA, IRAILAK 16

- 14:00etan bazkaria Karrikaxarren.

Ba al zenekien...

Nafarroako ardi latxaren esne gordinaz egindako gazta lehiaketan, laugarren izan dela Elizondoko Maria Jesus Larretxea?



MENDI
ostatua

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

CARLOS GARAIKOETXEA
ETXENIKE
abokatua

Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 816

ELBETEKO POSADA

ONGI PASA BESTAKI

6 logela bainugelarekin eta egongela bat

- Eguneko menua
- Aste hondarretan karta
- Enpresa otorduak
- Familia bikurak
- Bataloak ...

Karrikaundi z/g
ELBETE
T. 948 581 519
info@posadaelbete.com

www.posadaelbete.com

MENDIALDE
Jatetxea

T. 948 453 060 · AMAIUR
www.mendialdea.com

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.ttapa

Mármoles SOULE

HILETA ARTEA

T. 948 453 444
M. 629 659 583
ARIZKUN

BAZTAN

MUSIKA → IKASTURTE BERRIARI BEGIRA

Musika tresnen poltsa sortu nahi dute Musika Eskolan

Hala, hasiberriak ohartuko dira gustokoa duten ala ez

TTIPI-TTAPA

Musika Eskolan izena ematen duten ikasle hasi berrientzat ez da erraza izaten jakitea hasieran euren aukerakoa den musika tresnak gogobeteko dituen epe laburrean alde zurrerik probatu gabe. Egoera horri soluzioa emateko, musika-tresnen poltsa sortuko dute Musika Eskolan ikasturte honetan.

Musika-tresna maileguan hartuko lukeen ikasleak ongi zainduko duen konpromisoa hartuko du jabearen aitzinean eta, gerora, tresna maileguan hartu duen ikaslearen eta tresnaren jabearen artean salerosketarik ematen balitz, tratu hori bien arteko afera izanzen dela jakinarazi dute Udalordezkariek.

Gai honetan interesatuta daudenek informazio gehiago har dezakete Musika Eskolan 948 452495 (Jeanne) edo udaletxean 948 580006 (Maite Oteiza).

Herrietako eskolen besta Arraiozen

Irailaren 22an Arraiozek hartuko du Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztango herrietako eskolen besta. Xehetasunak hurrengo alean emanen ditugu.

Esleitu diren obrak

Hainbat obra eta lan esleitu ditu Tokiko Gobernu Batzordeak uda honetan: Elizondoko San Francisco Javier ikastetxe publikoa garbitu eta zaborra biltzeko ardura El Haou Lahcen-i esleitu dio, 23.000 eurotan (BEZ kanpo), berak aurkeztu baitu eskaintzarik merkeena. Bertzetik, Baztan Ikastolako leihoak aldatzeko obra Betiko SLen-presari agindu dio, 18.133,58 eurotan (BEZ



ARGAZKIA: ONDIKOL

Giro ederrean bete du mende erdia Baztandarren Biltzarrek

Berandu bada ere, ezin aipatu gabe utzi Baztandarren Biltzarreko ospakizuna. Berro sargoriarekin eta jendetza haundiarekin ospatu zen uztailearen 21ean Elizondoko Baztandarren Biltzarren 50. edizioa. Orga apainduen lehiaketan, Berroetak aurkeztutako *Frantsek erre ondoan elizaren inaugurazioa* karroza izan zen irabazle-ikusitza argazkian-. Bigarren saria Elizondoko Beti Zurrutak taldearen *Arotzarena etxeko sutegia* izan zen eta hirugarrena *Elbeteko lehenbiziko telebistak*, *Valentina Tereshkova astronauta errusiarraren hegaldia* irudikatzen zuena. Denera 23 orga aurkeztu ziren eta aunitzek 1963ean aurkeztu zutenaren irudikapena egin zuten. Desfilea eta gero, 1.500 lagun bildu ziren Merkatuko Plazako herri bazkarian.

barne). Arizkungo eskolako teilatua berritzeko obrak, beriz, Victoriano Elizagoien Etxegarairi esleitu dizkio, 19.488,25 eurotan (BEZ kanpo).

ARGAZKIA: ONDIKOL

Bertan elkartearen argazki lehiaketa

Bertan-Baztan elkarteak antolatutako V. argazki lehiaketako epaimahaiak aurkeztutako 50 argazkien artean, 2014ko egutegia osatuko duten argazkiak aukeratu zituen, baita hiru argazki saritu ere: 1. saria, 400 euro, Elizondoko Edurne Biguriak irabazi du, eta 2. eta 3. sariak Oronoz-Mugairiko Josu Inziartek (200 euro) eta Pello San Millan elizondarrak (100 euro) eraman dituzte. Bertan Egunean, Saioa Salaburuk eman zizkien sariak.



UTZITAKO ARGAZKIA

Patxi Meoki Espainiako txapeldun

Espainiako Iraupen-txirridularitzako txapelketa jokatu zen abuztuaren 24an Murtzian eta Master 50 kategorian Patxi Meoki elizondarrak lasterketa irabazi eta urrezko domina eskuratu zuen. Gauza bera egin zuen Luciano Mitxelena lesakarrak Master 60 kategorian. Aipatzekoa da, apirilean erori baten ondorioz Meokik lepauztaia hautsi zuela, eta lau hilabete beranduago Espainiako txapeldun izan da.

ZUGARRAMURDI

HERRIKO BESTAK → ERREPASOA

Ahate joko eta joko besta berreskuratu dira aurten bestetan

Sorpesak ere izan dira, su artifizialak erraterako

Koro eta Margari

Izugarri ongi joan dira Andremari bestak. Eguraldi aldetik denbora xarmanta egin du: ez berorik ezta euririk ere, eta egun eguzkitsua eta gau izartuekin.

Gainera, galduak genituen bi ekitaldi berreskuratu ditugu aurten: alde batetik, ahate joko bi urtez egin gabe gelditua baitzen zaldunen faltan. Aurten sei zaldunekin (lau saratar eta bi zugarramurdiar) egin

ahal izan zen. Bertze aldetik, joko besta hainbat urtez egin gabea zen (beharbada hamar-hamabi urte?), eta aurten lastozko pizina eder bat plaza erdian eman, eta haren inguruan eta gainean joko politak egin ziren.

Eta Valentziatik ekarritako sorpresa ere ikusgarri izan zen: Elizargietatik botatako su artifizialak egiazki sorpresa polita izan baitziren jendearentzat.

Bertzalde, ez da ahantzi behar bestetako hainbat ekitaldi egin ahal izateko zenbat jendek egin behar duen lan. Adibidez, bezperako piperada prestatzen dute-



ARGAZKIAK: MARGARI ETA KORO

Lehenbiziko argazkian, ahate joko. Ahate joko egin ondotik gako-jokoa egiten da. Bigarren argazkian, pilota partiden txapeldunak. Hirugarrenean, musikariak. Carles lesio-natua zen, baina hala ere, gurgildun aukian eskea eta gigante egunetan aritu zen. Azken argazkia joko bestakoa da. Argitxu pizina gainean arrautza ehizan ageri da.

nak, edo zikirorako 220 makil moztu eta zuritzen aritzen direnak, edo haragia puskatu eta 220 makil horietan sartzen ari-

tzen direnak, edo 100 kilo piper xehatzen aritzen direnak, edo 800 plater eta eltze erraldoiak garbitzen aritzen direnak...

Biziki txalogarria eta eskertzekoa da jende honek egiten duen lana.

Eta orain refeta! Ongi pasa.

URDAZUBI

KULTURA → UDAKO ERREPASOA

Ekitaldiz betetako hilabetea izan da agorrila

Seigarren aldiz egin da Burdinaren Eguna

TTIPI-TTAPA

Herritarrek nahiz bisitariak izan dute zerikusia agorril honetan ere. Pilotaren Unibertsoa jaialdiak eman zien agorrileko ekitaldiei hasie-

ra eta azken urteotan hutsik egiten ez duen ekitaldi honetan, pilota modalitate ezberdinak ezagutzera eman ziren.

Agorrilaren 10ean, berriz, Burdinaren Eguna egin zen. Aurtengoa seigarren edizioa izan zen eta gaiarekin lotutako egitarau zabala prestatu zuten. Bertzeak bertze, burdin minerala idi-gurdietan



ARGAZKIA: ONDIKOL

Monasterioko monjeek Bizkaitik etorritako burdin minerala urrearen truke erosi zuten Burdinaren Egunean.

garraiatzen zeneko ibilbidea antzeztu zuten. Hilaren 24an, azkenik,

dantzak eta herri kirolak ikusi eta sagardoa eta inguruko ohiko jaki-

ak dastatzeko bertze besta eguna antolatuta zuten.

SARA

BESTAK → BURUILAREN 7TIK 11RA

Larunbateko Sara Korrikarekin abiatuko dira borts eguneko bestak

Zikero-jaterako erreserba telefonoz egin daiteke edo buruilaren 7an Herriko Etxeko Ostatuan erosi

TTIPI-TTAPA

Aurten ere egitarau zabala prestatu du Besten Komiteak herriko besten karietara.

LARUNBATA, BURUILAK 7

- 09:00etatik 19:00etara Ball Trap (plater tiroketa) Plaziden bordan.
- 17:00etan Sara Korrika 12 kilometroko lasterketa plazatik abiatuta.
- 22:00etan SMOKEDELUXE eta BETAGARRI taldeen kontzertua.
- 00:00etan KOLOKArekin dantzaldia plazan.
- Gau guztian Iparraldeko gaiteroak eta txarangak animatzen.

IGANDEA, BURUILAK 8

- 10:00etan Meza, Urruñarrak klikarekin. Itzulian itzuli Mariñelak Danborrada gaiteroekin.
- 10:30ean luze partida, Uztaritzeko eta Baigorriko taldeen artean.
- 16:30ean ahate jokoa, eta karrikan ibilaldia joaldunekin eta gaiteroekin.
- 17:30ean herri kirol saioa.
- 19:00etan aperitifa SARAKO KANTARIAK alaitua.

- 22:00etan kantaldia AMARENALABAK taldearekin.
- 00:00etan dantzaldia XITOAK-ekin.
- 00:00etan suzko zezena.
- TXARANGAITAK karrikak animatuko ditu.

ASTELEHENA, BURUILAK 9

- Goizean, itzulian itzuli gaitero eta txistulariekin.
- 10:30ean luze partida, txapeldun izan diren bi selekzioren artean.
- 13:30ean zikero jatea, Olhain Ikastolak antolatuta. Erreserbatzeko 05 59 54 27 58 edo 06 73 90 03 52ra deitu. Edo buruilaren 7an 10:30ean Herriko Etxeko Ostatuan salgai.
- 16:30ean zaldi ikusgarria.
- 17:30ean esku huska trinketean.
- 18:30ean euskal dantzak Zazpiak Bat taldearen eskutik.
- 20:00etan aperitifa alaitua trikitalari eta SARANGA taldearekin.
- 22:00etan kantaldia IZARRAK-ekin.
- 23:00etan dantzaldia GAUBELA taldearekin.

ASTEARTEA, BURUILAK 10

- Goizean, itzulian itzuli gaitero eta txistulariekin.
- 09:30ean paxaka eta bote luze txapelketa.
- 10:30ean luze partida, Spuc taldea eta selekzio baten artean.
- 17:30ean Joko garbi errebotean, Sarako



ARGAZKIAK: SARAKO TURISMO BULEGOA ETA MARTIN GOIKOETXEA

Aitzineko aldietan bezala, ekitaldi andana antolatu ditu aurten ere Besten Komiteak.

Izarra pilota eskolako gazteeekin.

- 18:15ean Joko Garbi, Harдойtarrak eta Luzaz Gazte taldeen artean, errebotean.
- 19:00etan Mutxikoak KUXKUXTU txarangarekin.
- 20:00etan Idole gaua Gaztetxean.
- 20:30ean aperitifa alaitua trikitalariekin.
- 22:00etan dantzaldia SAMAIN taldearekin.
- Gau guztien KUXKUXTU txarangak karrikak animatuko ditu.

ASTEAZKENA, BURUILAK 11

- Goizean, itzulian itzuli gaitero eta txistulariekin.
- 09:00etan Sarako azienda lehiaketa.
- 10:30ean hurren jostaketak plazan, euriarekin kiroldegian.
- 10:30ean trinketean, Xoko Txapelketa.
- 17:00etan esku huska partida, Euskal Herriko bestetako Esku Pilota Txapelketaren finala.
- 18:00etan esku huska trinketean, Waltari-Ducassou, Larralde-

Etchetoren aurka.

- Aldi berean, bertsulariak trinketean eta plazan: Eneritz Zabaleta, Odei Barroso eta Xumai Murua. Gai emaiten Karlos Aizpurua. Ondotik zozketa.
- 19:30ean aperitifa alaitua ETXARTAHIZPAK-ekin.
- 22:00etan dantzaldia BIDEKOAREkin.
- 23:30ean su artifizia-lak.
- 00:30ean dantzaldia JOSELU ANAIAK taldearekin.



SARA
HERRIKO ETXEA

Plazan elkar ikusiko dugulakoan Herriko Kontseiluak besta onak opatzen dauzkitzue

SARARI BALHOREAREN ETA LEYALTASUNAREN SARIA EMANA ELIJS XIV-EN 1693-AN

AZPIEGITURAK → ERAIKUNTZA BERRIA

Larreko bertsulari zenaren izena emanen diote ikusgarri gela berriari

2014ko abuztuan estrenatuko da eraikin berria

Franck DOLOSOR

Jean Pierre Ixtilarte Larreko bertsulari zenaren oroitzapena ez da zorionez berehala itzailiko, Herriko Etxea eraikitzen ari den ikusgarri gela berriari berriki zendu den koplariaren izena emanen baitiote. Larreko kultur areto berria Gantxiki trinketea eta ezker paretaren ondoren altxatzen ari dira. Lehen harria uztailean eman zuten hautetsiek. Ekitaldian andere auzapezak azpimarratu zuen bururatzen ari den agintaldian hitz eman zuten azken proiektua dela eta bere taldeak baizik ez duela horren alde egin. Christine Besonartek dio gela anitz izanen dela mota guzietako ikusgarriak antolatzeko gisan. Herriarren arteko harremanak eta garapen ekonomikoa eta kulturalak sustatuko ditu 2014ko abuztuan estrenatuko den gelak.

300 metro koadroko gelak 330 ikusle hartzen ahalko ditu eta taula aski haundia izanen du 20 metroko zabalera eta 12 metroko sakonera izanen baititu. Hautetsien

DATUA

3,5

MILIOI EURO
gostako da
Larreko gela berria.

arabera, Karrika Nagusia berpizteko balio izanen du azpiegitura berri hunek. Hiru milioi eta erdi euro gostako da Larreko gela berria eta Herriko Etxeak espero du diru laguntzak eskuratzea Akitania eta Pirinio Atlantikoetako lurralde gobernuek.

30 urte uholdeak gertatu zirela

Joan den abuztuaren 26an urtemuga berezia izan zen 30 urte bete baiziren, bertzeak bertze, Urdazuri eta Amezpetu errekek atara zirela eta uholde ikusgarriak jasan zirela Senpere aldean. Gure Irratian egin zioten elkarrizketan, Germain Ezponda orduko Senpereko auzapezak oroitarazi zuen borts lagun hil zirela eta bertze lau desagertu. Ezpondaren erranetan, beharrik uholdeak egunaz gertatu zirela gauaz izan balira ehun hil izateko arriskua izanen baitzen, bereziki



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Larreko kultura areto berriaren lehen harria eman zuten hautetsiek uztailean. Azken egun hauetan ikus daiteke lanak erritmo onean aitzineratzen ari direla.

udatiaz bete-beteak ziren akanpalekueetan. Uholdeak gertatu ondoren, duela urte batzuk eraiki den Luberriako baradera egiteko asmoa agertu zuten euriteen eragina ttikitzeko. 10 milioi euro baino gehiago baliatu dira Luberriako urtegi hori eraikitzeko eta azken urteetan Ipar

Euskal Herrian egin den obrarik haundiena da. Gainerat, segurtasun neurriak zorrotz dira eta oran ur bazterrean bizi diren herritarrek alertak izaten dituzte telefono bidez uren mailak gora egiten duelarik. 2007ko maiatzean ere uholde haundiak jasan zituen gure herriak.

Emak Hor taldeak mendea

Emak Hor parropiako taldeak ehungarren urtemuga ospatuko du irailaren 15ean. Egun hortan besta haundia egingen dute herriko korralaren eta fanfarrearen mendeurrena ospatzeko.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarinetatik
2 km.tara

FLATER, KONBINATUAK - OGITARTEKOAK
MENUAK ENKARGUZ - PINTXOAK
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA - URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

ARMUA JATETXEA

T. 948 599 131
Zuzenberrirako errep. 5 km
URDAZUBI

ttipi-ttapa
info@ttipi.net
(0034) 948 63 54 58



Martutzak
ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA.
♥ Soinekoak
♥ Ilerrako apaingarriak
♥ Poltsak
♥ Bisuteria

Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425

EZKONTZAK

Mikel Saldias Iribarren eta **Oihana Bereau Juankorena**, Urrozkoa eta Iturengoia, abuztuaren 3an Iturenen.

Pedro Apeztegia Altzugarai eta **Yolanda Bañeza Fernandez**, Lesakakoa eta Irungoa, uztailearen 27an Lesakan.

Iban Dillana Giraldo eta **Edurne Carrerero Rodriguez**, Irungoak, uztailearen 6an Etxalarren.

Antonio Rael Redondo eta **Arantza Miren Lasa Ansalas**, Hondarribikoak, uztailearen 20an Etxalarren.

Unai Blanco Mikelarena eta **Alicia Cebrian Rodriguez**, Irungoak, maiatzaren 11n Etxalarren.

Xabier Elizalde Oskoz eta **Ruth Bertiz Erasun**, Iturengoia eta Beintza-Labaiengoa, abuztuaren 10ean Arantzan.

Oskar Telletxea Mariezkurrena eta **Estibaliz Urroz Elizalde**, Ezkurrakoa eta Doneztebekoa, uztailearen 3an Donezteben.

Garikoitz Salaberri Baleztana eta **Maiete Bertiz Arrastio**, abuztuaren 17an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



kukuka
Zarpigurutze, 1 • DONEZTEBE
948 450 252

SORTZEAK

Araitz Razkin Otermin, Leitzakoa, uztailearen 14an.

Ainitze Alduntzin Iranzo, Leitzakoa, uztailearen 19an.

Aitor Irisarri Sola, Iruñekoa, abuztuaren 22an.

Malen Bereau Mindegia, Iturengoia, abuztuaren 6an.

Irati Esarte Elizalde, Iturengoia, uztailearen 13an.

Laida Bengoetxea San Sebastian, Etxalarkoa, abuztuaren 14an.

Noa Otazo Ansalas, Etxalarkoa, abuztuaren 6an.

Kaiet Sanzberro Lujua, Etxalarkoa, uztailearen 30ean.

Eneit Elizalde Bertiz, Arantzakoa, uztailearen 18an.

Aroa Mikelarena Taberna, Arantzakoa, uztailearen 19an.

Garazi Zulaika Iturria, Arantzakoa, abuztuaren 19an.

Amaia Paula Avram, Doneztebekoa, uztailearen 1ean.

Aritz Goñi Iguzkiagirre, Doneztebekoa, uztailearen 25ean.

Luka Mazon Apeztegia, Doneztebekoa, abuztuaren 3an.

Narrea Villanueva Andueza, Doneztebekoa, abuztuaren 14an.

Elaia Esarte Juanotena, Doneztebekoa, abuztuaren 22an.

Ibai Salaberri Elizaintzin, NARBARTEOA, abuztuaren 13an.

Markel Etxenike Sistiaga, NARBARTEOA, abuztuaren 24an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



Belen
Loretoak eta Floristeria
AUKERA ZABALA LORETAN
Intzakardi, 8 • DONEZTEBE
T. 948 451 758

HERIOTZAK

Justa Gamio Etxenike, Anizkoa, uztailearen 17an, 88 urte.

Juan Jose Saralegi Caballero, Leitzakoa, uztailearen 19an, 74 urte.

Gloria Telletxea Urdanabia, Elizondokoa, uztailearen 20an, 84 urte.

Felicia Arretxea Arretxea, Iruritakoa, uztailearen 21ean, 91 urte.

Bisitacion Ordoki Almandoz, Arantzakoa, uztailearen 23an, 87 urte.

Prudencia Eskudero Santesteban, Zubietakoa, uztailearen 23an, 86 urte.

Mikaela Irigoien Goia, Berakoa, uztailearen 23an, 78 urte.

Maria Angeles Mujika Martiarena, uztailearen 26an, Berakoa, 81 urte.

Maria Teresa Igartzabal Salvador, Lesakakoa, uztailearen 27an, 80 urte.

Petra Etxeberria Irigoien, Sunbillakoa, uztailearen 26an, 88 urte.

Luis Olaetxea Ubiria, Lesakakoa, uztailearen 30ean, 83 urte.

Juana Ibarra Irigoien, Sunbillakoa, uztailearen 29an, 82 urte.

Maria Isabel Tapia Sansiñena, Berakoa, uztailearen 28an, 69 urte.

Maria Josefa Gainza Elgorriaga, Berakoa, uztailearen 27an, 92 urte.

Lidia Arretxea Amorena, Elbetekoa, uztailearen 27an, 80 urte.

Ines Iparrea Irigoien, Arizkungoa, abuztuaren 7an, 82 urte.

Juan Bautista Ariztimuño Goikoe-txea, Leitzakoa, abuztuaren 8an, 86 urte.

Ramona Leizaola Oiarbide, Leitzakoa, abuztuaren 11n, 86 urte.

Miguel Telletxea Fagoaga, Berakoa, abuztuaren 13an, 75 urte.

Jose Luis Telletxea Babaze, Oizkoa, abuztuaren 14an, 83 urte.

Jaime Rodriguez Lopez, Ezkurrakoa, abuztuaren 15ean, 84 urte.

Juana Malda Sansiñena, Berakoa, abuztuaren 16an, 66 urte.

Asun Sarobe Viela, Lesakakoa, abuztuaren 20an, 100 urte.

Casimira Mendiberri Iriarte, Arizkungoa, abuztuaren 19an, 93 urte.

Juan Tomas Iraizoz Bertiz, Sunbillakoa, abuztuaren 19an, 76 urte.

Manuela Etxeberria Itzea, Amaiurkoa, abuztuaren 21ean, 86 urte.

Josefa Hernandezena Telletxea, Leitzakoa, abuztuaren 24an, 89 urte.

Jose Manuel Rekondo Bengoetxea, Leitzakoa, abuztuaren 25ean, 69 urte.

Juana Irigoien Etxeberria, Elizondolurritakoa, abuztuaren 27an, 103 urte.



Nicolas TELLETXEA AROZENA

Igantzi, 2012ko irailaren 10ean
I. URTEURRENA

*Senar ona, aita zoragarria,
aitatxi ezin hobea eta senide paregabea.*

*Dena eman zenigulako,
adiorik ez, geroarte baizik.
Betirako gure bihotzean.*

ZURE FAMILIA

HERRI KIROLA → ABUZTUAREN 11N JOKATU ZEN SUNBILLAN HAMABIGARREN EDIZIOA

Donato Larretxea eta Floren Nazabal nagusitu dira Ramon Latasa Sarian

Ander Erasun eta Mugertza II irabazle gazteetan

TTIPI-TTAPA | SUNBILLA

Floren Nazabalek eta Donato Larretxeak lortu zuten garaipena abuztuaren 11n Sunbilla jokatuak Ramon Latasa Sariaren 12. edizioan. 51 segundoko alde ateratzen zioten Aitzol Atutxa eta Joseba Otaegi gazteei.

Bikoteek lau probatan neurtu zituzten indarrak. Aurrenekoan, bi kanaerdiko ebaki behar zituzten, aizkolari bakoitzak egur bana ebakiz. Bigarren proban, txanda librean aritu ziren, eta bikote bakoitzak lau kanaerdiko bat zutik eta 45 ontzako bi etzanda moztu zituzten. Hirugarren-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Ramon Latasa Sariko partehartzaile eta antolatzaileak, sariak banatu ondotik.

goan, berriz, bakarkako lana zuten, eta bakoitzak launa kanaerdikora lehiatu ziren. Azken proban, txanda librean aritu ziren, eta bikote bakoitzak lau kanaerdiko eta 60 ontzako beste lau moztu zituzten.

Nazabal eta Larretxeak 35 minutu eta 24 segundo behar izan zituzten lanak akitzeko eta lehenbiziko eta laugarren probetan nagusitu ziren. Atutxa eta Otaegik 35:54 behar izan zituzten. Bigarren eta hirugarren proba irabazi bazituzten ere, le-

henbizikoan eta laugarrenean huts egin zuten eta bi minutu baino gehiago galdu zuten.

Joxemari Olasagastik eta Iñaki Azurmenidik hirugarren egin zuten (36:50). Igeldokoak Unai Otaño ordezkatu zuten. Gazteen mailan ere

zazpigarren edizioa jokatu zen. Gazte hauek hiru proba egin behar zituzten. Lehenbizikoan, 45 ontzako bat zutik eta neurri bereko bertze bi etzanda ebaki behar zituzten. Bigarren proban bakarka aritu ziren, eta bakoitzak bi kanaerdiko eta 45 ontzako bertze bi enbor moztu behar zituzten. Azken proba txanda librekoa izan zuten, eta bikote bakoitzak lau kanaerdiko eta 60 ontzako bi moztu zituzten.

Ugaitz Mugerza mutrikuarra eta Aurtizko Ander Erasun nagusitu ziren, 30 minutu eta 16 segundoko denborarekin; bigarrenak Ruben Saralegi leitzarra eta Larrañaga izan ziren (30:48) eta hirugarren Jon Reondo leitzarra eta Oihan Larretxea beratarrak (31:54).



Maria Angeles MUJIKA MARTIARENA

Beran, 2013ko uztailaren 26an

*Goxo goxo hartzen ditu
mendi gainak lainoak,
goxo goxo hartu zaitu
zeru gainean jainkoak.*

GOIAN BEGO
Familia

HERRI KIROLAK → EH-KO KOXKOR BILTZE TXAPELKETA

Etxegarai eta Ariztegi berriz txapeldun

TTIPI-TTAPA

Fernando Etxegarai beratarrak, mutiletan, eta Maika Ariztegi, nesketan, lortu zituzten abuztuaren 10ean Larrainzarren Euskal Herriko koxkor biltze txapelketako txapelak.

Mutiletan, Etxegarai 6 minutu eta 23 segundo behar izan zituen lanak burutzeko. Beratarrarentzat zortzigarren txapela da Euskal Herrikoan, baina 2010. urte-

az geroztik ez zuen lortua, 2011 eta 2012an azpitxapeldun izan baitzen. Emakumezkoetan, Maika Ariztegi 7 minutu eta 30 segundo behar izan zituen lanak akitu eta Euskal Herriko txapela 13. aldiz irabazteko.

Egun berean Larrainzarren jokatu zen Euskal Herriko Arpana Txapelketa nagusian, Andoni Irigoien eta Guillermo Etxenike baztandarrak laugarren izan ziren.

BAIGORRIN

7 herrialdeen txapelketa irailaren 14an

TTIPI-TTAPA

Zazpi Herrialdeen arteko herri kirol txapelketa irailaren 14an jokatu da Baigorri. Azken bi urteetan azpitxapeldun izan ondotik, berriz ere txapela lortzen saiatuko da Nafarroako ordezkaria. Hamaikagarrena izanen litzateke. Baina Bizkaia eta Gipuzkoa ere arerio gogorrak izanen dira.

21 urteko ibilbide oparoaren ondotik bere azken partida jokatu zuen abuztuaren 10ean Galarretan Iñaki Martínez Lizasok (Doneztebe, 1973). Izerdi eta malko artean

adio erran zien zaleei. Izerdia, kantxa gainean despiditu zelako. Urrizarekin batera 35-40 galdu zuen Koteto Ezkurra eta Joxe Etxeberria herritarren kontra. Malkoek bere

esker oneko hitzak itzali zituzten. Esker ona erremon-te zaleei, enpresetako kudeatzaileei, urteetan arerio eta lagun izan dituen erre-montelari... »

Iñaki LIZASO | Doneztebeko erremon-telariak adio erran du 21 urteren ondotik

«Txapel guttiago lortu ditut baina aunitz hobetu dut Ezkurrarekin arituz»

Aitor AROTZENA | DONEZTEBE

Izerdia eta malkoak ez ezik, odola ere izan da Lizasoren erremon-teko ibilbidean. Lesio-ek ez diote bere onena ematen utzi, 1992ko azaroaren 27an debuta-tu zuenetik. «Erremon-teak aunitz eman dit, bai pertsonalki, bai kirolar-loan, baita lan arloan ere. Bizitza erdia baino gehiago eman dut frontoian eta lesio aunitz izan ditut, momentu txarrak izan dira, baina nere barnean bazen zerbait hori gainditzera lagundu nauena, familiaren laguntzarekin... Lesio larriak izan dira, bi be-launetatik operatu nin-duten, pubis-osteopa-tiaren ondorioz urtebe-te egon nintzen aritu ga-be eta duela lau urte sor-baldako tendoia hautsi nuen, guretako garran-tzitsuena dena, eta de-netatik aitzinera atera naiz, eta hor goitiamantendu naiz. Horri es-ker indartsuagoa egin naiz», aipatu digu. «On-dorio baikorrako atea-tera ditut egoera txarre-an egon naizenean ga-raipenetatik baino».

Minak min, 2000ko buruz buruko txapela janztea lortu zuen, bere lorpenik handiena. Bertze lau urtetan azpitxapeldun izan zen bakarka eta binaka ere lortua du txapela, bertze hainbat torneo bezalaxe. Lizasok dioenez,



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES

Iñaki Lizasok abuztuaren 10ean jokatu zuen profesionaletako azken partida.

«ni ez naiz txapel aunitzeko pilotaria izan. Kotetoren garaikidea izateak badu horretan zerezikusia, noski, baina nahiago dut hainbertze ez irabazi eta jokoan ailegatu naizen mailara ailegatu. Eta hori ere, neurri handi batean, Kotetori zor diot. Ezkurak bertze baliabide batzuk biltzera behartu ninduen, atzelariaren joku tradizionalak ez baitzion minik egiten eta gauza berriak bilatu behar izan nituen. Horri esker aunitz hobetu eta eboluzionatu nuen pilotari moduan eta lehenago ikusi ez ziren gauzak egin nituen». Halere, hasieran baziren zaleak harmailetatik «hori ezze-

URTEEN ESKARMENTUA
«Duela bortz-sei urte ohartu nintzen bazi-rela bizitzan norbere egoa baino gauza garrantzitsuagoak. Dirua eta txapelak irabazten dituzunean, egoak ez dizu disfrutatzen uzten eta gehiago nahi duzu. Galtzen duzunean berriz, bertzea hobea izan dela pentsatu eta onartu beharrean, porrota handitzen duzu zure buruan eta barnetik jaten zaitu. Horretaz jabetu naizenean, pisu haundi bat kendu dut gainetik».

la erremon-tea» ziotenak. Urte aunitz eman ditu atzelarien artean onena izaten eta horrekin gelditzen da Lizaso. Urte horietan, «hasieran Eizagirre zen atzelari onena, superklase bat, eta hura gainditu behar izan nuen, gero etorri ziren Urrutia eta gaur egun San Miguel da onena, eta Etxeberria III ere, gure kintakoa izanik, azken urteetan salto haundia eman du eta onenen pare jarri da».

OINARRI SENDOAK

Krisiaren ondorioz, erremon-tea bere onenean ez badago ere, «oinarri sendoak» dituela uste du Lizasok: «Nahiz eta diru aunitzik ez

ikusi eta bertze lanbi-deekin bateratu behar, erremon-telari gazteek ilusio handia dute, erre-montezaleak oso fide-lak dira eta gaur egun enpresaren kudeatzaileak arras onak dira, bere garaian erremon-telariak izandakoak eta zai-netan dute kirol hau. Oin-arri horiekin aitzinera aterako da erremon-tea».

Azken belaunaldiko erremon-telarien artean, «Juanenea da proiektiorik handiena duena, potentzia handikoa da, gogoak eta ilusio handia ditu... Baina badira pilotari gehiago ere arras politak. Denek bezala entrenatu behar-ko dute, lan egin, ordu aunitz sartu frontoian, erremon-tea ikusi, baina landuz gero goiti egingen dute, ez da bertzerik».

Lizasok berak ere be-launaldi gazteei dakiena erakusteko gonbitea ere jaso du enpresaren eskutik. Familian hirugarren belaunaldia beteko duen estatua erama-teak nahikoa lan emanen diola jakin arren, «erremon-teari esku bat bota eta egun batean atzelari-aholkuak eman eta dakidana erakusterik baldin badut, ni pozik, zer guttiago!».

Kike Elizalde, enpre-sako intendentek agurrean erran zenez, «Li-zaso iraultzailea izan da, pilotari bakarra eta ezberdina».



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL
Txapeldun eta txapeldunordeak, agintari eta laguntzaileekin batera.

LAXOA → BAZTAN-ERREKAKO XXXIV. TXAPELKETA

Doneztebek hemezortzigarren aldiz jantzi du txapela etxeko finalean

9-5 irabazi zion abuztuaren 3an Bear Zanan jokaturako finalean Arraioz Ari

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Baztan-Errekako 34. Laxoa Txapelketaren finala jokatu zen abuztuaren 3an Donezteben eta etxeko taldea izan zen garaile, 9 eta 5 irabazi baitzion Arraiozko taldeari. Gisa honetara, hemezortzigarren txapela lortu zuen Doneztebek, nahiz eta azkenekoa 2008an eskuratu zuen.

Doneztebe A taldean, Pascual Bertiz sakalaria, Koldo Legarra numeroa eta Javier Bertiz eta Jokin Arraztoa laurdenak aritu ziren. Arraiozko taldean, berri, Iñaki Mihura sakalaria, Jon Gamio numeroa, eta Ketxus Lournagarai eta Asier Zubikarai laurdenak aritu ziren. Partida hasiera berdindu



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Doneztebeko Pascual Bertiz sakalaria izendatu zuten finaleko jokalarari onena.

dua joan zen, baina azkenean Doneztebe nagusitu zen. Juan Mari Artazkoz doneztebarrak, Txuma Prim iruritarra eta Miguel Maritorenarra arraioztarra izan ziren epaile eta Doneztebeko Juan Telletxea aritu zen marrak zaintzen.

3. ETA 4. POSTUAK

Hirugarren posturako norgehiagokan Oizek 9 eta 7 irabazi zion Arraioz Bri. Oizekin Iker Bereau, Lander Men-

diola, Iñaki Mendiola eta Ugutz Zelaieta aritu ziren eta Arraioz Brekin Mikel Mindegia, Xabier Mihura, Aritz Alunda eta Miguel Maritorenara.

Doneztebeko Oskar Mindegia eta Jose Luis Legarra zinegotziek jantzi zizkieten txapelak txapeldunei eta Arraiozkoek Nafarroako Pilota Federazioko Ramon Iriarte presidentearen eskutik hartu zituzten sariak. Hirugarren saria, Doneztebeko La Caixa-

ko Ana Juanenak eman zien Oizko jokalariei eta laugarrena Pilotarien Batzarako Josean Arroioz Bkoei.

Pilotari onenari Mikel Eizagirre zaleak eskaintzen duen saria Doneztebeko Pascual Bertiz sakatzailereantzat izan zen. Jose Luis Arozena guantegileak guante bat eman zien txapeldunei eta berte bat zozketatu. Hau Xabier Maritorenari tokatu zitzaion.

LAXOA

Gazteen laxoa txapelketa abian

TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 17an hasi zen Baztan-Errekako gazteen laxoa txapelketa. Bortz talde ari dira irailaren 28an Donezteben jokaturako den finalerako txartel bila. Arraiozko taldean Eki, Josu eta Urki Etxandi, Mikel Organbide eta Pello Telletxea ari dira; Doneztebe A taldean, Goio Mindegia, Aimar Jabalera, Iñigo Belarra eta Urtzi Juanena; Doneztebe B taldean Gorka Iribarren, Iñaki Maylin, Aitor Arozena eta Eloy Garzia; Iruritaoko taldean, Pablo Dorregarai, Imanol Casillas, Iker Aleman, Iker Casillas, Unai Aleman eta Xabier Mariezkurrena; Oizko taldean, Ioritz eta Zorion Zelaieta, Aimar Saldias eta Jon Oiartzabal.

irailak 5 - 19

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Erakusketak



BERA | 2013.09.08

San Migel zubiko gertakizunen 200. urteurrenaz erakusketa

Orain 200 urte San Migel zubiko gertakizunak gogora ekarriz, erakusketa antolatu dute Beran. Irailaren 8ra arte ikusgai egonen da Kultur Etxean, goiz-arratsaldez.

Bizikleta



LEITZA | 2013.09.15

Mendi bizikleta martxa eta maratoi erdia Plazaolatik

Natur Bideen Egunaren harira, antolatu dituzte bi proposamenak. Izen ematea Plazaola Turismo Partzuergoan edo www.plazaola.kirola.org orrialdean egin liteke.

Bestak eta kirola



OIZ | 2013.09.07

Gazteen Laxoa Txapelketako partida Oizko bestetan

Arraioz eta Oizko taldeek Gazteen Laxoa Txapelketako partida jokatu dute larunbat honetan, Oizko besten barne. 10:30ean hasiko da Oizko plazan.

Bestak

OIZ

Herriko bestak

Irailaren 6tik 8ra.
Xehetasunak 25. orrialdean.

ERATSUN

Amabirjin bestak

Irailaren 5etik 8ra.
Egitaraua 26.orrialdean.

SARA

Herriko bestak

Irailaren 7tik 11ra.
Xehetasunak 36. orrialdean.

ELBETE

Herriko bestak

Irailaren 13tik 16ra.
Xehetasunak 33.or.

ELIZONDO

Txokotoko bestak

Irailaren 6tik 8ra.
Xehetasunak 32. or.

ARANTZA

Eguzkialdeko bestak

Irailaren 7an. Xehetasunak 14.orrialdean.

IGANTZI

Piedadeko bestak

Irailaren 7an. Xehetasunak 15. orrialdean.

LESAKA

Bittiriko bestak

Irailaren 13tik 15era.
Xehetasunak 12. orrialdean.

ETXALAR

Urritzokietako bestak

Irailaren 14tik 16ra.
Xehetasunak 13. orrialdean.

Matrikulazioak

BERA

Musika eskola

Irailaren 2tik 6ra.

LESAKA

Musika eskola

Irailaren 2tik 12ra.

Erakusketak

ELIZONDO

Lesagibel eskulturak

Abuztuaren 23tik irailaren 6ra Arizkunenean, astelehenetik asteazkenera 17:00-20:00 eta ortzegunetik igandera 11:00-13:00 eta 17:00-20:00.

BAZTAN

Gorramundi instalazioa

Irailaren 7ra arte
Thierry Albide artista elizondarraren erakusketa bisita daiteke Gorramendiko zaintzako etxolan.

ELIZONDO

Margolan erakusketa

Irailaren 14ra arte
Paisajismo ikastaroko ikasleen lanak ikusgai egonen dira Arizkunenean.

BERA

San Migel zubiaren 200. urteurrena

Irailaren 8ra arte garai bateko ilustrazio, testu eta planoak, argazkiak, ikasleek egindako zurbia, maketak eta bertze hainbat bitxikeria ikusgai Kultur Etxean. Egunero 10:00-14:00 eta 16:00-20:00.

Hitzaldiak

SARA

Sarako meategiak hizpide

Irailaren 28an Sarako meategien inguruan mintzaldia Eric Dupre eta Christian Saint Arromanekin, 21:00-etan Lur Berri gelan.

Ospakizunak

SENPERE

Emak Hor taldearen mendeurreneko besta

Irailaren 15ean Emak Hor Senpereko abes-

batza eta fanfarrearen mendeurreneko besta.

ARRAIOZ

Eskola ttikien besta

Irailaren 22an Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztango herrietako eskolen besta.

ETXALAR-SARA

Lizaietako besta

Irailaren 22an Lizaietako besta Lizaietako lepoan: ehiza akordioaren izenpetzea, animazioak, merkatua, zikiro-jatea...

Kontzertuak

SARA

Kantaldia

Irailaren 6an Atsulai taldearekin kantaldia, 21:30ean elizan.
Irailaren 18an kantaldia Mendi Xola taldearekin elizan, 21:00etan.

BERA

Organo kontzertua

Irailaren 21ean 19:00etan bisita Esther Iñiguezekin eta 20:00etan Monica Melvovaren organo kontzertua.

PROPOSAMENA

LESAKA

Giza probak Bittiriko bestetan

Gero eta oihartzun haundiagoa hartzen ari dira giza probak. Sunbillako bestetan, erraterako, nesken eta mutilen arteko lehia ikusteko aukera izan genuen eta irailaren 14an, Bittiriko besten barne, Lesakan errebantxa jokatu dute. Ibarrako zortzi neska Sunbillako sei mutilen kontra ariko dira. 12:00etan hasiko da norgehiagoka.



DONEZTEBE

Musika eskola

Irailaren 9tik 13ra.

BERA

Kiroldegia

Irailaren 18tik 21era.

Toki Ona kiroldegian.

LESAKA

Kiroldegia

Irailaren 9tik 15era.

Igeriketa ikastaroetan izena emateko aukera.

LEKUNBERRI

Kiroldegia

Irailaren 16tik aurrera.

Plazaola kiroldegian.

Azokak

SARA

Ortzegunero azoka

Irailaren 26ra arte

ortzegunero azoka plazan.

Mendi irteerak

IGANTZI

XXIII. Mendi bizikleta ibilaldia

Irailaren 8an haur eta helduentzako ibilaldiak antolatuko dituzte. Izen ematea egunean berean 07:30etik 08:30era.

LEITZA

Mendi bizikleta martxa eta maratoi erdia

Irailaren 15ean Lasmerketa Urtotik abiatuko da 9:30ean eta Lekunberriraino 21 kilometroko bidea egin beharko dute. BTT martxa egiteko luzera desberdineko hainbat aukera proposatu dituzte. Izen emateko epea, irailaren 11.


ZUGARRAMURDI

Donostiatik Oriora

Irailaren 22an Donostia-Orio ibilaldia egingen du Zugarramurdi-ko Atxuria Mendi Taldeak.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Pasio krimena

FERNANDO MORILLO

Gaumin, 2013

Xoel filosofo gazteak eta June ingeniariak maitasun istorio pasional bezain suntsigarria bizi ondok, kontaktua etetea erabaki zuten. Orain, Juneren familia obsesiboak heriotza mehatxuak jaso ditu, eta neskak laguntza eskatzen dio. Xoel Ainitzerekin azalduko zaio, hura ere maitale ohia eta fisikari berezi samarra. Neska baten gorpu birrindua agertzen den unean, Juneren aita desagertu egiten da. Biktima edo hiltzaile? Susmagarri bat bertzearen atzetik, ekaitzen zientzia bortitza, kaos-dantza-aren misterioa, dirutza ederra jokoan, hilketak, amorrua eta maitasuna, sexuaren indarra eta itsukeria, adiskidetasunaren gozoa. Pasioaren gatza eta latza. Intrigaz beteriko nobela bizi-bizia, grinez eta krimenez josia da Fernando Morilloren *Pasio krimena* lana. 16 urtetik goitikoentzat eginiko liburua da. la berrogei liburu baditu argitaratuak Morillok azken hamar urte pasatxotan: gazte literatura, thriller zientifikoak, dibulgazioa, biografiak...

Musika



Faborez 07

TRIKITIXA ELKARTEA

Euskal Herriko Trikitixa Elkarte, 2013

Erromerietako piezak eta erreperitorio tradizio- enala berreskuratzeko asmoz, *Faborez 07* diskoa kaleratu du Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak. Pieza zaharrak berreskuratzeko ikerketa eta dokumentazio lanetan zazpi urte daramatza elkarteak, eta horren emaitza da *Faborez* bildumako zazpigarren disko hau. Oraingo disko honetan azkoitiarrak (Gipuzkoa) dira parte hartu duten guztiak: Mamen Maltzeta eta Nerea Ugarte, Barrenola anaiak, Zabale anaiak, eta Jauregi eta Anderek. Kide guztiak plazarik plaza ibilitakoak badira ere, batzuentzat esperientzia berria izan da diskoa grabatzea. Elkartearen iritziz, bilduma «oso garrantzitsua» da *Faborez 07*, erromerietan urteetan entzun ahal izan diren piezak «euskari seguru batean» bilduta gordetzeko aukera ematen duelako. *Faborez* bildumako gainerako diskoak bezala, zazpigarren ale hau ere erromeria batean aurkeztu dute uda honetan.

Internet



Auzolanen inguruko atal berria Argian

ARGIA.COM/AUZOLANA

Krisi garaian, auzolana indartzen ari den alter- natiba interesgarria dela ikusita, sail berria abiatu dute Argia astekarian eta webgunean: Auzolan esperientziak. Izenburu horren pean, eta aste honetan hasita, bi astean behin auzolanean egindako egitasmo sozial, ekonomiko nahiz bertze arlotakoen berri emanen dute, astekarian eta webgunean. Lide Hernando eta Martin Vicioso kazetariak arduratuko dira ekimenok azaltzeaz, Euskal Herriko txoko guztietan bildutakoak. Webgunean argia.com/auzolana helbidean topatu ahal izanen dituzue gaiarekin lotutako erreferentzia guztiak. Auzolanean garaturiko esperientziak ezagutzen dituenari ere mezua igorri diote: «aintzat har ditzagun ekimen jakinen inguruko informazioa helarazi nahi badiguzu, idatzi mgarcia@argia.com helbide elektronikora, gaia *Auzolan esperientziak* dela azalduz».

Nire aukera



Pello ALAÑA
Malkorrako obradorea

«Herritar guztiekin egoteko aukera izaten da Elbeteko bestetan»

Nork ez ditu probatu Elizondoko Malkorra gozotegiko produktu goxoak? Pello Alaña elbetearra da horiek hain tentagarri izatearen errudunetako bat, obradorea baita. Hortik aparte, semearekin egotea gustatzen zaion aita ere bada: «semearekin ibilaldi bat egin, mendira edo errekarara joan zakurra hartuta...». Pilota eta futbol-partidak ikustea ere atsegin du, eta bereziki Osasunarenak: «lehen partidak ikustera kanpora ere joaten ginen, baina orain telebistan ikusten ditugu». Bidaletzea da bere bertze zaletasuna: «urtero nora-bait joaten gara». Semea dutenetik bidaia laburragoak egiten dituzte, baina «hemendik aitzinera gehiago aterako gara, koxkortzen ari baita». Bisitatu dituen tokien artean, Egipto du gogoan: «zirrargarria izan zen», dio. Gustura ezagutuko lukeena, berriz, Indonezia: «egunen batean joanen naiz, seguru». Besta on bat egiteko Iruñeko sanferminak aukeratu ditu, baina Elbeteko bestak ere maite ditu: «herritar guztiekin egoteko aukera izaten da, kanpoan bizi direnekin ere bai».

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONUZ-MUGAIRI.

Etxebizitza salgai, mobleztatua dago. Berogailua, igogailua eta trastelekua-rekin. 16 milioi pezeta/100.000 euro. ☎ 948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

UITZI. Bi duplex salgai. Batek 114,93 m² eta besteak 94,66m². Prezio interesgarria. ☎699 461213.

LESKA. Albistur karrikan 140m²ko bifamiliarra salgai. 4 logela, 2 bainugela, terraza eta garaiea. Prezio ona. ☎692 748664.

LEITZA. Borda salgai, 8.000 metrorekin. Ura, bidea eta baimen guztiak. ☎948510204 (gauetz).

ELIZONDO. Pisua salgai. Santiago karrikan, argitsua, bista onak. 71,78 m². Garaiea, trasteroa eta igogailua. 3 balkoi, 2 logela, sukaldetxela zabala, ekipatua. Material onak. 2007an eraikia. Estreintatu gabe. 25 milioi pta (150.253 euro). ☎665 706228.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA **ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€** IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA


TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

SUNBILLA. Etxebizitza salgai. 2 logela, egongela tximiniarekin, komuna, sukaldetxela hornituta, berogailu zentrala, balkoia eta terraza, 2 trasteleku etxearen goiko solairuan, aukera haundiko etxea. Garaiea marra. Igogailua. Prezio onean. ☎628 473539.



ZIGA. Baztango behatokia. Erdi zaharberrietua dagoen borda salgai. 120m², ura eta argiarekin. 48.000 euro negoziagarri. Sarbide ona. ☎678 099422.

BERA. Herri erdian pisua salgai. Oso egoera onean. Bizitzera sartzeko prest

eta tasatutako prezioaren azpitik. ☎637 920545.

ETXEBIZITZAK
erosi

Zaharberrietako etxe edo **borda** erosiko nuke. ☎620 307548 (Arkaitz).

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

BERA. Pisua errentan emateko. Mobleztatua. Hiru logela. ☎626 774582.

ELIZONDO. Pisua errentan eman edo saltzeko. Mobleztatua. Hiru logela. ☎676 707620.

BERA. Agerra auzoko Urruñako Plazan pisua errentan eman edo saltzeko. Mobleztatua. 90m². Egoera ona. ☎659 962502.

IRUÑEA. Zolina kalean, pisua errentan emateko. 3 gela, 2 komun, egongela eta sukaldetxela. Uniber-

tsitate publikotik 2 minutara eta pribatutik hurbil. Sadar futbol-zelairaren ondoan. Ikasleendako aproposa. Salgai ere badago. ☎626 389226.

ELIZONDO. 90m²ko pisua errentan emateko. Mobleztatua dago: 3 logela, 2 bainugela, sukaldetxela eta egongela. Baita garaie plaza eta trastelekua ere. ☎680 347407.

IRUÑEA. Zaragoza etorbidean logela bat errentan emateko. Unibertsitate publikotik 5 minutara. ☎620 209663.

ELIZONDO. 3 logelako pisua errentan emateko. ☎650 283322.

LEITZA. Herri erdian, pisua errentan emateko. Igogailuarekin. ☎948 510591.

DONEZTEBE. Elizagibela karrikan 90 m²ko pisua errentan emateko. Sukaldetxela, egongela, 3 logela,

komuna, bainugela eta bi balkoi. Berogailua eta igogailuarekin. Mobleztatua. ☎680 106936.

ETXEBIZITZAK
errentan hartzeko

LESKA-BIDASOA. Pisu edo etxe tiki bat lur pixkabatekin errentan hartuko nuke. Hilabetean 350-400 euro ordaintzeko prest. ☎636 777478 (Deitu 16:00etatik aitzinera).

LESKA. Pisua errentan hartu nahi da. 350 euro ordaintzeko prest. ☎647 233690.

GARAJEAK/LOKALAK
errentan emateko

ETXALAR. 60 m²ko lokal bat komertziorako errentan emateko, prezioa negoziatzeko. ☎669 686626.

LESKA. Lur-azpiko bi garaie errentan ematen dira. Bat Bittiria karrikan eta bestea Albistur karrikan. ☎618 962937.

LURRAK/ORUBEAK
salgai

ETXALAR. 1.500 m²ko lur eremua salgai. Zelaia da. ☎948 635188.

ETXALAR. Herriko tokirik politenean, 1.800m²ko lur eremu eraikigarria berehala saldu nahi da. Etxebizitza eraikitzeko baimen guztiak. Ura, argia eta kotxearekin sarbidea. Zelaigunea egina. «Zuk jarri prezioa, ez joan bankura. Moldatuko gara».

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(Abuztuaren 16tik 23ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 42 € (=)

Zerri gizena
1,485 € kiloak. (=)

Zerramak:
0,850€ Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,28

1.koa 4,02

2.koa 3,87

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,34

1.koa 4,06

2.koa 3,92

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruxak 135,00

idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:

urruxak 155,00

idixkoak 165,00

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,00/3,10

Zaldi-behorrak: 1,84/2,04

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 7,80/7,90

8-10 kilokoak: 6,40/7,10

☎678 099422 (Jose Antonio).

DONAMARIA. 1.500 m²ko lur eremua salgai, intxaurrendobatzuekin eta bista ederrekin. 12.000 euro. ☎650 395477.

ARRAIOZ. 9.500 m²ko lur eremua salgai, ura eta argia jartzeko aukera. Etxea eraikitzeko aukera. 24.000 euro. ☎620 307548.

ITUREN. 500m²ko lur eremua salgai, ura eta argiarekin. Bidetik hurbil. Etxe mugikorra jartzeko aukerarekin. 23.000 euro. ☎616 264219.

LANA

eskariak

Neska bat edozein lanetan aritzeko prest. Badu esperientzia. ☎650 797669.

Neska gazte hezitzailea prest dago goizez nahiz arratsaldez haurrak zaintzeko. Auto propioarekin. ☎637 835236.

Gizonezkoa lan bila: lortze zaintzan, iturgintzan, elektrizitate lantxoak egiten, zerbitzari lanean, animalien zaintzan... aritzeko prest dago. ☎651 881863.

Emakumea prest dago haurrak zaintzeko, adineko pertsonak zaintzeko, etxeak garbitzeko edo beste edozertarako. Auto propioarekin eta disonibilitate osoarekin. ☎667 942138.

Emakumeak garbiketaren lan eginen luke: bulegoak garbitzen, portalak... ☎647 233690.

LANA

eskaintzak

IRUÑEA. Neska bat behar da dendan eta obradorean lan egiteko. ☎948 220618.

BERA. Sukaldari bat behar da jatetxean aritzeko. Esperientziaduna. ☎948 631658/650 981950.

MOTORRAK

salgai

Nissan Almera Tino 1.8 monobolumena salgai. 5 atekoa. Gasolina. 2005 urtekoa. 67.000 km. ITV bi urterako pasatu berria. ☎628 572273.

Mercedes Clase A 160 salgai. 105 CV, 2000. urtekoa, 131.000 kilometro, klimatizazioa, azken ITV 2013ko maiatzean. Aparkalekua garajea izan du beti. 2.700 euro. ☎948 637021/634 546512.



Yamaha JOG-R scooterra salgai. 2006 urtekoa, 800km. 500 eurotan. ☎619 884121.



Nissan Patrol luzea, 6 zilindrokoa salgai. ITVa pasatua. ☎616 198016.

Renault Master salgai, 2002koa, baskulantearekin. ☎616 243530.

ANIMALIAK

oparitzeko

Katakumeak oparitzeko. ☎661 006327.

Bi arratoi zakurkume eta **katu bat**, ttikia, oparir emateko. ☎948 580231.

Katakumeak oparitzeko. ☎619 988383.

Bost urteko **setter ingeles arra** oparitzeko zaintzeko denbora faltagatik. ☎615 711356.

DENETARIK

salerosketak

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287/ ☎699 461394.


TOKIKO GOBERNU BATZORDEAREN AKORDIOA
 -HIRIGINTZA-
 Udaleko Tokiko Gobernu Batzordearen akordioa, 2013ko uztailaren 30eko: Kaxernat SLk aurkeztutako SK2 Sektoroko UE10eko Urbanizazio Proiektu Bategina hasiera batez onestea.
 Espediente hau jendeaurrean izanen da 20 egunez, dagokion iragarkia NAOn argitara ematen denetik.
 Bera, 2013.08.14
 ALKATEA,
 M^o Sol M. Taberna Iratzoki

ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritz. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



Agotza paka ttikiak salgai. ☎948 450216.

Sagardoa egiteko **tolarea** (60 cm) eta **matxaka** salgai. Oso egoera onean. Kupela opari. ☎692 748664.



Gazteentzako ohea eta altzarria salgai. Egoera eta prezio oso onean;

SANTESTEBAN TAILERRAK


ETA GAINERA:
 PEUGEOT 307 XN 1.4 - 2002 urtekoa
 FORD MONDEO 2.0 DCI - 2002 urtekoa
 PEUGEOT 206 1.9 70 CV - 2003 urtekoa
 HYUNDAI GALLOPER - 1999 urtekoa
KILOMETRO 0etan prezio ezin hobekak!!!!

BAZTAN MOTOR S.L.

TXAPA ETA PINTURA | MEKANIKA | ELEKTRIZITATEA

Orain Quad, ATV, UTV, Scooter eta Boogyak lanerako eta aislarako


G GOES
 Zaldubia Industrialdea 31730 IRURITA
 T. 948 45 21 19 • 948 58 06 55

ohea 105 cm eta 3 kajoi. ☎626 097128.



Pinuak, haritza, pagoa erosten ditugu. Pagoa eskura ordainduko da. ☎678 099422.

DENETARIK

galdu-aurkituak

Mitsubishi markako lla-beroa edo giltzatak duen kotxeko **giltza bat galdu** da Sunbillako bes-tetan. Aurkituz gero, deitu faborez. ☎630 045413.

DENETARIK

zerbitzuak

Diana Iniestarekin ikastaroak urritik maiatzera. 6-12 urte bitarteko haurren-

tzako: 1. Ongi portatu! (psikologia eta artea); 2. marraztu eta pintatu (teknika desberdinak) eta 3. ingeles ikastaroa. 12 urtetik goitiko gazte eta helduentzat pintura eta marrazki ikastaroa. Begiratu ordutegiak. <http://pintayrepinta.blogspot.com>, dianainiesta@hotmail.com edo 948 453478.

DENETARIK

bestelakoak

Lan tresnak berreskuratu nahi ditut. Norbaiti mesedetan utzi nion eta ez dit itzuli. Konpresore elektriko, Kango markakoa, puntero taladro eta palarekin. Hiru hariko 30 m luzeko alargadera. Tresna daukanak badaki ez dela berea. ☎669 664026.

BERA. Irailtik aitzinerat Manex 16 urteko beratarak, Barañango Alaitz institutua joan-etorria egin behar du. **Kotxea konpartituko** dugu? ☎697 506214.

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txokea; 4) www.ttipi.net bitartez



ARGA MARTIN FAGOAGA etxeko printzesak urte bat bete du. Zorionak familiaren eta berexiki ama, aita eta Oierren partetik. Besarkada bat.



Lesakako **IRATI BERGES** **CHOPERENAK** urtea beteko du irailaren 14an. Zorionak familia guztiaren partetik. 1.000 muxu haundi.



Doneztebeko **NAYA SARRATEAK** 5 urte bete ditu abuztuaren 7an. Muxuak sorgintuari familiaren eta berexiki aita, ama, Aimar eta Oihanen partetik!



Elizondoko **BEÑAT** eta **OIER ERRO MUJIKAK** 11 urte beteko dituzte irailaren 5ean. Zorionak eta musuak. Aunitz urtez aita, ama eta familia guztiaren partetik. Maite zaituztegu!




Zubietako **AIMAR** eta **ENEKO IRIBARREN** **JUANIKORENAK** 9 eta 3 urte bete dituzte uztailearen 27an eta abuztuaren 3an. Muxu handi bana Zubietako eta Doneztebeko familiaren partetik eta berexiki Miraireren partetik. Gure etxeko bi gizontxoei, zorionak!



JUNE URKIOLA MARIEZKURRENA Leitzako gure printzesatik urtea bete du abuztuaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Ettxalarko **ENARA MENDIBURU GALARREGIK** gure etxeko tikiak urtea bete du abuztuaren 31n. Zorionak familia guztiaren partetik! Muxu haundi bat.



Iturengo **IZEI BEREAU** **MINDEGIAK** abuztuaren 19an 3 urte bete ditu. Zorionak Izaro, Enara, Urki, Markelen eta berexiki Malen tikiaren partetik.



Lesakako **LEXURI AROTZENA** **PORTUK** 7 urte beteko ditu irailaren 15ean. Aunitz urtez eta muxu pila bat familia osoaren partetik.



LEXURI AROTZENA **PORTU** lesakarrak 7 urte beteko ditu irailaren 15ean. Zorionak eta zazpi muxu haundi ama, atxa eta berexiki hainbetez maite zaituzten Orti, Elorri eta Aiert anaien partetik.



Berako **ALAIN ZELAIETA** **BERASATEGIK** 7 urte beteko ditu irailaren 3an. Zorionak eta muxu potolo bat familia guztiaren partetik.



JOANES eta **IRATIK** 7 eta 2 urte bete dituzte abuztuaren 4 eta 25ean. Zorionak eta muxu haundi bana gure bikote txintxori, familia guztiaren partetik.



Lesakako **JARE UBIRIA** **IRIONDOK** irailaren 1ean 5 urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren partetik. Berendu goxoa prestatu. Muxu aunitz.



Zorionak **ENARA, URTZI, ASIER, IXIAR** eta **AINARARI** abuztu bukaeran eta irailaren urteak beteko dituztelako! Ongi pasa Doneztebeko familiaren partetik! Muxu bat.



Leitzako **JUNE URKIOLA** **MARIEZKURRENA** gure perlak urtekoa bete du abuztuaren 24an. Zorionak eta muxu pille bat izeba Bijiren partetik!



Lesakako **BEÑAT ARIZTEGI** **ALZUGARAIAK** 2 urte bete ditu abuztuaren 10ean. Zorionak Lesakako eta Iturengo familiaren partetik.



Lesakako **BEÑAT ARIZTEGI** **ALZUGARAIAK** 2 urte bete ditu abuztuaren 10ean. Zorionak etxekoaren partetik.



IZARO GOIENETXE **MARITXALARREK** 3 urte bete ditu abuztuaren 27an. Muxu potolo bat anaien eta gurasoen partetik. Zorionak printzesa!



Aunitz urtez **AINERE!** Hiru muxu potolo Oier, Enea, Alaitz, Ane, Ioritz, Intza eta Aroaren partetik. Ongi pasa eguna, printzesa!



Arantzako **AINERE** **IGUZIAGIRRE** **IRIGOIENEK** 3 urte beteko ditu irailaren 10ean. Zorionak eta aunitz urtez etxekoaren partetik eta berexiki anaia Ioritzaren partetik. Milaka muxu goxo!



Ettxalarko **AINARA** gure tikiak irailaren 8an 2 urte beteko ditu. Zorionak sorgintxo familia guztiaren partetik.



Berako bikote honek, **IKER** eta **SAIOA** **PETRIRENA** **PIKABEAK**, irailaren 6an eta 25ean 7 eta 9 urte eginen dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik eta egun ona pasa.



JUNE SALGADO SOLO lesakarrak irailaren 4an 5 urte beteko ditu. Zorionak sorgintxo!



Arantzako **HARRIET** **ETXEPETELEKU** **ZABALETAK** 2 urte beteko ditu irailaren 16an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik. Aunitz urtez!



ELAIK irailaren 12an 3 urte beteko ditu. Aunitz urtez gure printzesari eta mila muxu potolo!



Sunbillako **OIER** **AGIRRE** **ARRETXEAK** irailaren 16an urteak beteko ditu. Aunitz urtez Sunbilla, Gerendiain eta Lekunberriko familien eta berexiki atxa, ama eta Argiaren partetik.



Sunbillako **XANTUX** **IRIARTE** **IBARRAK** irailaren 11n urteak beteko ditu. Aunitz urtez familia guztiaren partetik baina berexiki bere ilobak diren Iraide eta Garaineren partetik. Ongi pasa eguna osaba eta berendu goxoa prestatu. Muxuak.



Zubietako **Egoi FAGOAGA** **BABAZEK** abuztuaren 11n 4 urte bete zituen. Muxu haundi bat atxa, ama eta berexiki arreba Luaiaren partetik.



Abuztuaren 11n Zubietako **Egoi FAGOAGA** **BABAZEK** 4 urte bete zituen. Muxu haundi bat amatxi-atxui eta izeba-osabaren partetik eta muxu potolo bat Eñaut lehen-gusuarren partetik.




Gatzeluko **JOSEBA TELLETXEA SARRATEAK** 9 urte bete ditu abuztuaren 31n. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik, berexiki zure anaia Mikelen partetik.




Zorionak **IZASKUN!** Irailaren 4an urteak beteko dituzu. Muxu haundi bat denen partetik, baina besarkada eta pa haundi bat Leianeren partetik.



Sunbillako **IRADI** **ARRETXEAK** **OTXADORENAK** abuztuaren 21ean 9 urte bete zituen. Muxu haundi bat familia guztiaren partetik eta berexiki Maialen ahizparen partetik.



Ettxalarko **AIERT** **IRIARTE** **BENGO** **TXEAK** urtea beteko du irailaren 25ean. Zorionak eta muxu haundi bat Ettxalarko familiaren partetik.



Berako **ANER** **DEL** **POZO** **RIOPEDREK** 2 urte beteko ditu irailaren 11n. Zorionak eta aunitz urtez! Muxu potolo bat.

hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa

www.ttipi.net

argazki soila 4 EURO

argazki bikoitza 8 EURO

aldizkarian interneten



æek

Euskara praktikoa

BAZTANGO AEK

EUSKARA IKASTAROAK

- Talde arruntak, maila guztiak
- Guraso taldeak
- Autoikaskuntza (EGArako prestakuntza berezia)
- Ordutegi zabalak: goizez, eguerdiz, arratsaldez

**Animatu eta etorri
gurekin euskara ikastera,
praktikatzeraz,
EUSKARAZ BIZITZERA!!**

Jaime Urrutia 16, Elizondo (Nafarroa)

948 452 471

baztan@æk.org



EUSKARA
ERRAZTU
EGITEN
DIZUGU
METODIKAREKIN
TELO
PONEMOS
MAS FACIL
CON METODIKA

BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA

Lesakako Matxinbeltzanean Tel. 948 637 796 bortziriak@ikanet.net

MALERREKAKO EUSKALTEGIA

Donezteben, Rosa Seminario, 6 Tel. 948 451 555 malerreka@ikanet.net

LEITZALDEKO EUSKALTEGIA

Leitzako Udaletxean Tel. 948 610 776 leitza@ikanet.net

euskara
errazago
egiten



www.ikaeuskaltegiak.eu

MATRIKULA ZAITEZ
irailaren 30a baino lehen